

ASTELEHENEKO Goienkaria

2008ko otsailaren 11 > Astelehena > IV. urtea > 177. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Elkargik 700
bazkide ditu
Debarroan,
entitatearen
%7 hain
zuzen ere"

Jesus Alberdi
Elkargi > 06



G2a Latzen taldearen emanaldia Eskoriatzan > 23

HERRIAK Josu Otadui zena omendu zuten zapatuan Arrasaten > 10

KIROLA Mikel Etxabe Eibarko jokalariai elkarrizketa > 15

KULTURA Fangoriak emanaldia egin zuen zapatu gauean Jamen > 25

BERGARA > EUSKARA

Helduak, gehiago euskaraz

Iazko euskararen kale erabileraren gaineko balorazioa egin du Udalak > 11

POLITIKA > DEBAGOIENA

EA Eren jardueren etetea

Garzon epailearen aginduz, EA Eren eta EHAKren jarduerak eten zituzten egubakoitzean. Ondorioz, itxialdiak, giza katea eta manifestazioak egin dituzte aste bukaeran Debagoieneko hainbat herritan. "Eteteak uzten dituen zirrikituak aprobetxatuta, lanean jarraitzeko" asmoa azaldu dute EA Eren ordezkariek. > 05

ARETXABAETA > BILERA

Dendari eta tabernariak, kezkatuta

Lapurretak direla eta, alkatearekin bildu dira > 13

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarrizketa > 06
Iritzia > 07-08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-22
Kultura > 23-27
Saillkatuak > 28
Irrati-Telebista eta Hitzorduak > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32



KONZENTRAZIOA Argazkian, zapatuko elkarrizkarako irudi bat. Udal gobernuan den EAE alderdiak ez zuen protestaldian parte hartu.

GOIENKARIA

BERGARA > EPAITEGIARI ERASOA

Epaitegiaren aurkako eraso, osoko bilkuran aztergai gaur

ADOSTASUN EZA Udalbatzako alderdiek mozio ezberdinak aurkez ditzakete gaur

ELKARRITARATZEA EAE izan ezik, alderdi guztiak izan ziren zapatuko kontzentrazioan

KALTETUAK Erasoengatik kaltetutakoek Ertzaintzaren komisariara jo beharko dute > 2-3

KIROLA > FUTBOLA

Uda, asteburuko jardunaldian irabazi duen bakarra

Aretxabaeta izan da preferente mailako 21. jardunaldian irabazteko gauza izan den ibarreko talde bakarra. Jon Arenazaren taldeak 1-2 irabazi zuen zapatuan Idiazabalen eta saillkapeneko bosgarren tokian dira orain, 34 punturekin. Partiduaren amaieran lortu zuen garaipena Udak.

Mondrak, aldiz, ez zuen partidu onik egin Hernanin eta 3-1 galdu zuen zapatuan. Lehen zatian egin zizkioten hernaniarrak hiru golak.

Eta Aloñak zuloan sartuta jarraitzen du. Atzo berriro galdu zuten Azkoagainen, oraingotan Ordiziaren aurka (1-3). > 16

SUPER AMARA

DENAK GUTXIAGO BALIO DU

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkalekua

BERGARA > ERASOA EPAITEGIAREN AURKA

Epaitegiaren kontrako erasoaz aztertzeko osoko bilkura gaur

MOZIO EZBERDINAK EAE eta Aralar batetik, EAJ eta EA bestetik eta PSE-EEk mozio ezberdinak aurkez ditzakete gaur

ERREAKZIOAK Alkateak ez du nahi izan baloraziorik egitea: "Osoko bilkuran emango dugu gure iritzia" azaldu du

KONZENTRAZIOA Atentua gaitzesteko 200 bat lagun elkartu ziren zapatu eguerdian San Martin plazan

EDU MENDIBIL/GOITB > BERGARA

Gaur, astelehena, ez ohiko osoko bilkura izango da Bergarako udaletxean, 19:00etan, joan den egubakoitz gaurdiko Epaitegiaren kontrako erasoaz aztertzeko.

Gaur goizean zehar jakingo da zenbat mozio aurkezten dituzten udalbatza osatzen duten alderdiek. Agurne Barruso Bergarako alkatearen hitzetan, "saiatuko gara Aralar alderdiarekin batera mozio bakarra adosten eta egoera guztia jasotzen, egueko erasoaz zein Garzon epailearen aginduz EA Eren jarduerak eten izana". Bergarako alkateak ez du nahi izan Epaitegiaren kontrako atentua baloratzerik: "asteleheneko osoko bilkuran emango dugu gure iritzia eta bien bitartean ez dugu adierazpenik egingo", esan digu Agurne Barrusok.

Mozio bat baino gehiago izango da aztergai gaurko udalbatzarrean; ziurrenik udal gobernuaren osatzen duten EAE eta Aralar alderdiek elkarrekin mozio bat aurkeztuko dute (gaur 9:00etan bilduko dira testua adosteko); EAJk eta EAK beste bat landuko dute; eta, azkenik, PSE-EE alderdiak beste testu bat eramango du osoko bilkurara. Egoera berezia izanik, ikusteko dago zer nolako prozedura jarraitzen duten gaurko bilkuran. Ez dago argi zein alderdik deitzen duen gaurko bilkura, udalbatza osatzen duten alderdi guztiak ados zirelako ez ohiko bilkura deitzeko. Normalean, osoko bilkura deitzen duen



ELKARRETARATZEA Besteak beste, Miren Azkarate Kultura sailburua eta EAJ, EA, Aralar, PSE-EE eta Ezker Batuko ordezkariak izan ziren zapatuko kontzentrazioan. E.M.

alderdiaren testuari mozio alternatiboak aurkezten bazaizkio, mozio alternatiboak bozkatzeko dira lehenbizi. Edozein modutan, Udaleko idazkariarekin lotuko dute gaur plenoaren prozedura.

EAJ, EA eta PSE-EE alderdiak osoko bilkura zapaturako deitzen saiatu ziren egubakoitz iluntzean, gaiaren larritasuna kontuan

izanik, baina EAEk eta Aralarrek udalbatzara gaurko atzeratzea erabaki zuten.

EAE IZAN EZIK, ALDERDI DENAK

Zapatu eguerdiko elkarretaratzean, EAE izan ezik, udalbatzako alderdi guztiak izan ziren ordezkariak. Era berean, Miren Azkarate Kultura sailburua, Arala-

reko Rebeka Ubera batzarkidea eta Oxel Erostarbe Gipuzkoako koordinatzailea eta Mikel Arana EBko kidea gerturatu ziren Bergarara. Horiez gain, hainbat herritarrekin batera, Imanol Bolinaga eta Victoriano Gallastegi Bergarako alkate ohiek hartu zuten parte ordu laurdenez eta isilean egindako bilkuran.

Udal gobernuak testu bat kalderatu zuen egubakoitz iluntzean, gainerako alderdiekin egindako bileraren ostean. Lehen puntuan zera zioen udal gobernuaren testuak: "Biharko [zapatuko] eguna Justizia Jauregiari egindako erasoan eragindako bergararrekin egoteari eta behar duten laguntza emateari dedikatuko diogu".



Miren Azkarate
Jaurritzako bozeramalea

Bonbak jarrita ez goaz inora, eta euskal gizartearen gehiengoak ez du nahi oinarri horietan eraikitako gizarte bat. Alderdiak legez kanpo uzteak edo giza eskubideen urraketak bide antzuek erakusten dituzte, aspaldiko errezetak direlako.



German Muruamendiaraz
EAJko zinegotzia

Atentatuaren aurrean gure gaitzpena, eta erasoagatik kaltetuei gure elkartzuna adierazi nahi diegu. Gehiengoaren nahiari atzea ematen dietenen estrategian kokatzen da eraso. Ziurrenik, EAekin batera testua eramango dugu osoko bilkurara.



Oxel Erostarbe
Aralar

Bide zibilen erabilera eta elkarrizketa dira Euskal Herrian bizi dugun gatazka politikoari irtenbidea emateko ardatzak. Ostiraleko ekintzak, torturak, ilegalizazioak, ordezkari politikoaren kartzelaratzak eta jazarpena bide agortuak dira.



Mari Karmen Barrenetxea
PSE-EE

Zuzenbide estatuen eta Bergarako herritarren kontrakoa eraso izan da eta udal gobernuari horrelako ekintzak bortizki salatzen eskatu nahi diegu. Kaltetuei gauzak erraztu behar zaizkie lehenbailehen normaltasunera itzultzeko.



Mikel Arana
Ezker Batua

Gure gaitzazpenik zorrotzena Bergarako atentatuaren zein atzoko kale borrokako ekintzen aurrean. Mehatxua ez da aurrera egiteko bidea. Ezker abertzaleari ETatik aldentzeko, eta gobernuari alderdien legea bertan behera uzteko eskatu nahi diegu.

KALTETUAK

Erasoengatik kaltetutakoekin bilera egin zuen Udalak zapatu goizean

Atentatuarekin kaltetutakoak deitu zuen Udalak bilera baterako zapatu goizean. 45 lagun inguru elkartu ziren Agurne Barruso alkatearekin eta Udaleko beste zenbait ordezkariarekin. Oraindik goiz da eragindako kalteak zenbatzeko. Edozein modutan, afektatuek Ertzaintzaren komisarian egin beharko dute salaketa eta aseguruaren partzuergoa arduratuko da kalteak ordaintzeaz. Hainbat herritar kexu ziren Udalak kaltetuei zuzendutako bulego bat zabaldu ez izanagatik. Alkateak zera esan digu: "Egubakoitzean 08:00etan bildu ginen Ertzain-buruarekin, eta hark esan zigun nahiago zutela horrela egitea; herritarrak zuzenean komisariara joatea. Astelehena izango gara Barne Sailarekin prozedura zehazteko". Bestalde, Epaitegiko lanak martxa onean dihoaz eta gaur bertan, astelehena, lan egingo dute han. Atzealdean egokitu dute sarrera.



DENDAK Biltoki denda izan zen kaltetuenetako bat.

x.u.

OLASO DORREA

XV. mendeko Olaso Dorreak hasieran uste baino kalte gutxiago jasan zituen

Epaitegitik oso gertu dago Olaso Dorrea, Telesforo Monzonen jauregia izandakoa. Eraikina XV. mendekoa da, eta bonbaren ezteandaren ostean ez zuen kalte larriegirik jaso. Moises Lazkano 75 urteko bergararra da etxeko zaintzailea azken 32 urteotan. Gaur egun ez da inor bizi han, baina Lazkano egunero joaten da hara lanera: "Zabaltegi dorrean bizi naiz eta logelatik ikustea daukat Olaso. Bomba entzun eta berehala altxatu nintzen ohetik. Kea eta hauts ikusi nituen Epaitegiaren inguruan eta mesanotxean konektatuta daukadan alarma berehala hasi zen jo eta jo. Segituan jaitsi nintzen Olasoraino, baina ertzainek ez ninduten sartzen laga. Berritro etxeratu eta 08:00etan deitu ninduten ertzainek, etxea aztertu nahi zutelako". Leihotako markoak eta fatxadetako kristalak izan ziren kaltetuak, "ezer apartekorik ez", Lazkanok esan digunez.



San Pedroko erlojua, ezteandaren ordua erakusten.



EPAITEGIA Epaitegiko sarreraren ondoan ezteanda egin zuen 15 kiloko lehergaiak.

x.u.

KALTETUEN TESTIGANTZAK



Jesus Berroia
Komenioko bizilaguna

Susto galanta hartu genuen emazteak eta biok bonbaren zartakoarekin. Kalte larregi ez ditugu jasan, baina sustoa galanta. Adin honekin eta horrelakoak jasatea ere... Horrela ez goaz inora.



Juanita Gutierrez
San Pedro frutategia

Golpe izugarria nabaritu nuen. Leihora hurbildu eta kea ikusi nuenean, ohartu nintzen denda ondoan zela. Hainbat kalte izan ditugu; kristalak hautsi dira eta hormetan zartadurak ditugu.



Nati Lazpiur
Biltoki

Epaitegitik urruti bizi arren, ezteanda entzun nuen eguenean, gauerdian. Goizean esan zidaten leherketa epaitegian izan zela. Ezteandaren ondorioz kalte dezente jaso ditugu dendan.



Juan Kruz Mendizabal
Santa Marinako parrokoa

Kalteak ugariak izan dira Komenioko gure lokalean. Bestalde, San Pedro elizan ere erlojua ezteandaren orduan geldi geratu da eta erloju ondoko beiratea mugitu egin da.



KALTETUAK Guztira, 45 kaltetu izan ziren ezteandaren ondorioz. Irudian, epaitegi aurrean zegoen auto bat.

x.u.

HURBIL eta TXILARRA belar dendeak


NOVA LINE-eko espezialistarekin elkarrizketa bat DOAN oparitzen dizute; hark **DOAKO AZTERKETA** egingo dizu eta **koipe, ur eta masa muskularreko** portzentajeaz informatuko zaitu

Pisua eta bolumena soberan badituzu...



falta
zaizu

Pisuren kontrolean arrakasta ziurtatuta duzu!



Har ezazu ordua:

HURBILen
Domingo Irala z/g
BERGARA
☎ 943 76 30 08

TXILARRAn
Durana 35 behea
ARETXABALETAN
☎ 943 79 10 15



EKONOMIA > ENPRESA

Tavex enpresak kapitala handituko du 40 milioi eurotan

Akziodunek erosten ez dituzten akzioak Brasilgo Camargo Correa enpresak erosiko ditu

Kapital handitzearekin lortuko dituen 40 milioi erurekin, eskuartean dituzten proiektuak indartuko dituzte

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Begarako Elorregi auzoan dagoen Tavex enpresak kapitala handituko du. Hain zuzen, Brasilgo Camargo Correa enpresak babestuko du kapital handitzea. "Brasilgo enpresa da gure akziodun garrantzitsuena %54,5arekin", esan zigun 6eko idazkari orokor Manu Diazek.

Diazek hitzetan, kapital handitzearen helburu nagusia da enpresak duen finantza-egitura eta dituen akziodunak indartzea.

KAPITAL HANDITZEA

Kapital handitzea nola egingo den azaldu digu Manu Diazek. "Lehen lehenik akziodunei akzio berriak erosteko aukera ematen zaie, eta haiek aurretik zituzten



TAVEX Irudian, Tavexek Bergarako Elorregi auzoan duen lantegia.

ARTXIBOA

akzioei gehitzen zaizkie. Era berean, akzio gehiago gura ez dituenak ez dauka erosi beharrik". Tavexek egingo duen kapital handitze honek berritasun bat du. "Akziodunek erosten ez dituzten akzioak Camargo Correa enpresak erosiko ditu. Hala, kapital handitzea 40 milioi eurotako izango dela ziurtatzen dugu eta hori ez da oso ohikoa. Kapital handitzea erabatekoa izango da eta

hori oso ona da guretako: lasaitasuna emango digu. Batez ere, kanpora begira gure taldeak duen irudia asko hobetuko da".

Kapital handitzea ondo dator kio Tavex enpresari eta, dagoneko, badakite zer egingo duten 40 milioi erurekin. "Ez dugu proiektu berririk jarriko martxan. Baina, egun, gure taldeak dituen proiektuak bideratzeko lagunduko digu", dio Diazek.

HAINBAT FILIAL

Tavex 1846. urtean sortu zen Bergaran. 1901. urtean Algodonera de San Antonio SA izena hartu zuen. 1989an Grupo Tavex sortu zuten. Gaur egun, 5.000 langile ditu taldeak, eta bazkideak, 50 herrialdeetan. Bost lantegi ditu Brasilen, bat Argentinan eta beste bat Txilen eta haiei Valentzia, Maroko eta Elorregiko lantegiak gehitu behar zaizkie.

OSAKIDETZA

Lehenengo bilera proposamen berririk ez

Sindikatuak bilera berri bat proposatu dute otsailaren 18rako

M.B. > BERGARA

Osakidetzak eta sindikatuak berririko ekin diete negoziatzioei. Eguenean egindako bilera ez zuten proposamen berririk egin, baina "gustura" irten ziren.

Bi aldeek gatazka konpontzeko gogoazaldu zuten eta, hartarako, hurrengo urratsa izango da otsailaren 18rako iragartzen duten bilera berria. Gainera, otsailaren 20an, Eusko Jaurlaritzako sailburu Gabriel Inclanek agerraldia egingo du.

Ordurako bi aldeak adostasunera iritsi ez badira, otsailaren 21erako greba deialdi berria egingo dute zortzi sindikatuak. Era berean, martxoaren 6rako aurrez iragarrita zegoen greba mantendu egiten da, momentuz.

DEKRETU "INPOSATUAK"

Eusko Jaurlaritzak abenduaren 26an dekretu bidez onartu zituen 2009ra arteko lan baldintzak. Erabaki haren ondoren, Osakidetzako langileek greba bat eta hainbat lanuzte eraman zituzten aurrera.

IRAKASKUNTZA > IKASTOLEN ELKARTEA

Ikasys, ikasle bakoitzaren beharretara egokitutako trebakuntza sistema

Aste Santuko oporren ondoren, Gipuzkoako hiru ikastolatan hasiko dira sistema berria erabiltzen eta, irailtik aurrera, beste 16 zentrotan

M.B. > BERGARA

Ikastolen elkarteak aurtengo eginkizun nagusia aurkeztu zuen pasa den astean: Ikasys du izena. Hain zuzen, ikasle bakoitzaren esku ordenagailu bat jarriko dute. Baina, ikasle guztiek ez dutenez maila berdina, bakoitzaren beharrei egokitutako tresna emango zaie. "Ikastoletako ikasleek trebakuntza sistema hobetzea da helburua", azaldu zuen prentsaurrekoan proiektuaren arduradun Oihan Odriozolak. Odriozolak urte asko daramatza Ikasys sistema osatzen talde

baten laguntzarekin eta, bukatuta ez badago ere, lehen proiektua aurkeztu dute. Hala, Aste Santuko oporren ondoren, Gipuzkoako hiru ikastolatan probatuko dute eta, ikasturte berriarekin batera, Euskal Herriko beste 16 zentrotan.

Bien bitartean, Ikasys-en bertsioa zertan hobe daitekeen aztertuko dute arduradunek. Asmoa da, etorkizunean, ikastola guztietako ikasleek halako ordenagailu bat edukitzea. Era berean, Ikasys sistemak ez du gain kosturik izango gurasoengan, orde-

nagailu guztiak ikastolek erosi dituzte-eta. Bestalde, hurrek erabiliko dutela kontutan hartuta, ordenagailu berezia aukeratu dute: eramangarria, txikia eta sendoa.

BOST SAILETAN BANATZEN DA

Ikasys sistemak dituen ariketak, trebatzekoak zein memorizatze-koak, bost sailetan banatu dituzte: euskara, gaztelania, ingelesa, matematika eta ingurumena. Sail bakoitzean, arloka eta zailtasunaren arabera mailakatutako 45.000 ariketa daude, guztira 225.000. Ariketak 6tik 12 urte arteko neska-mutikoendako dira.

Edukia osatzeko 40 bat irakasleren laguntza izan dute eta, momentuz, Lehen Hezkuntzarako bertsioa besterik ez dute egin.



IKASLEAK Ariketak 6-12 urte bitarteko ikasleei zuzendutakoak dira.

IKASYS

POLITIKA > EAE ETA EHAK-REN JARDUEREN ETETEA

EAE: "Lanean jarraituko dugu, eteteak uzten dituen zirrikituak aprobetxatuta"

Itxialdia, giza katea, kontzentrazioa eta manifestazioak egin dituzte aste bukaeran Debagoiengan, Garzon epailearen erabakiaren kontra

GOIATZ ARANA > BERGARA

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzon epaileak egubakoitzean eten zituen EAE eta EHAKren jarduerak. Badaezpada neurri gisa hartu zuen erabakia, bi alderdiotako ardura-dunek, Batasunaren bidez, "erakunde terroristari lagundu diotela" argudiatuta. Ondorioz, EAEk ezin izango du Espainiako Gorteetarako hauteskudeetara aurkeztu -EHAK-k ez du zerrendarik aurkeztu-. Martxo-ko hauteskudeetara aurkeztea galarazi dio Auzitegi Gorenak ere, eta diru iturri publikoak mozteko agindu du. Bestalde, jardun politikoa ez debekatzearabaki du, horretarako nahikoa arrazoi ez dagoela eta erabakia



PRENTSAURREKOA Herritar talde zabal baten babesa jaso zuten Arrasateko EAEko udal ordezkariak.

JOSETXO ARANTZABAL

neurritz kanpokoa dela ebatzita. Garzonek Gorenari aurre hartu dio, ordea, eta bigarren horren erabakiak ez du ondorio praktikorik izango, bi alderdien jarduerak etenda zeudelako ordurako.

GARZONEK HARTUTAKO NEURRIAK

Bi alderdien kontra neurri berberak hartu ditu Garzonek: jarduerak eten hiru urterako, hauteskudeetara aurkeztea galarazi, egoitzak eta webguneak ixteko

agindu, diru kontuak blokeatu eta diru laguntzak jasotzea debekatu, eta manifestazio nahiz kale agerraldiak egitea eragotzi, besteak beste. Hala eta guztiz, bi alderdion ordezkariak eutsi egin

ahal izango diete udaletan eta Eusko Legebiltzarrean dituzten karguei.

Garzonek erabakia publiko egin eta biharamunean, prentsaurrekoa eskaini zuen Arrasateko EAEk, herriko plazan. "Erabakia politikoa da, PSOEek hartutakoa, nahiz eta epaileek mozturro juridikoa jarri nahi izan dioten" adierazi zuen Oihana Aranburu zinegotziak, eta EAJ, PSOEren ezinbesteko konplizetza jo zuten. Egoera erraza ez dela aitortu arren, lanean jarraituko dutela berretsi zuten: eteteak uzten dituen zirrikituak aprobetxatuko dituztela, euren hautesleekin, eta oro har, herriarekin, hartutako konpromisoa aurrera eramateko.

MOBILIZAZIOAK IBARREAN

Egubakoitz gauean, 40 bat lagunek itxialdia egin zuten Arrasateko udaletxean. Oñatin, batzar informatiboa egin zuten egun horretan bertan. Zapatuan, kontzentrazioa egin zuten Eskoriatzan, eta manifestazioak, Arrasaten eta Bergaran. Guztietan egin zuten deia atzo Bilbon antolatutako manifestaziora joateko.

Ino Galparsoro > Arrasateko alkatea EAetik

"PSOEek independentismoa jokaleku politikotik atera nahi du"

G.A./J.B > BERGARA

Goienako hedabideen bitartez jaso zuen Arrasateko alkatea Garzon epailearen erabakiaren berri, egubakoitz goizean. Urgentziatzko balorazio bat egin zuen.

Garzon epaileak EHAK eta EAeren jardura etetea erabaki du. Ze balorazio egiten duzue?

Espainian zein neurritako demokrazia dagoen erakusten du erabaki honek. Euskal Herriaren independentziaren aldeko hautua egin duen alderdi bat tratatutik kentzera joan da Garzon.

Karguak pertsonalak direla eta, beraz, erabakiak ez duela zuzenean eraginik izango hauteskien eguneroko jardueran azpimarratu dute. Praktikan, nola geratzen dira udalak?

Orain arteko etete edo ilegalizazio kasu guztietan ere horrela izan da, baina orain honetan, espresuki aipatu dute karguak pertsonalak direnez aurrera jarraitzeko aukera izango dugula. Espero dut hala izatea.

Joan den astean izan zineten Madril deklaratzen, eta EHAK eta EAEko hainbat kide inputatu zituzten. Beste alderdi kide batzuekin ere hala egingo duten beldur zarete?



GOIENKARIA

Badirudi 200na orriko autoetan ez dela halakorik jasotzen, baina sorpresetara ohituta gaude, eta oraingoan ere, edozertarako prest egon behar dugu.

Ezker abertzaleak esan du egon egongo dela martxoko hauteskudeetan. Nola?

Ez dakit zein formaturekin, baina ziur nago hor egongo garela. Jendeak izango du gure hautuari botoa emateko aukera.

Mobilizazioak deitu dituzue egunotan.

Bai, eta garrantzitsua da herriak horietan esku hartu izana, hori delako lehen aipatu dudana demokrazia faltari aurre egiteko modu bakarra.

Laixan



LAIXANEKIN ZER?

Zeuria, neuria, geuria, euskeriaren arduria!



Bazkide agurgarria,

Gutun honen bidez, zuregana zuzenketan gara Laixan alkartiak datorren otsailaren 16xan, zapatua, 10:45ean lehenengo deialdixan eta 11:00etan bigarrenian, Sancti Spiritu Unibersidadeko Aula Magnan egingo dauen Batzar Berezira etor zaittezen eskaketako.

Gaur, Laixanek 475 bazkide ditu; Zuzendaritza Batzordian 9 kidek diharduei, horrein artian gehixenguak 4 urte baiño gehixago doia lan horretan eta eztaioi jarraitetako asmorik. (Gure alkarteko Estatutuetan, 25. artikulua dixo: '... kargu-epa bi urtetakoa izango da ...') Gaiñera, agorretik (irailletik) dinamizatzaile barik dago alkartia eta zuzendaritzako kideok hartu dittugu bertako ardurak. Egoera honek, garbi dago, "konponbide" bat eskaketan dauenez, Batzar Berezi hau deitu dogu alkartiarene etorkizuna argiketako asmuagaz.

Dagueneko 4 urte pasau dira azkeneko aldiz alkartiarene jarduna eta norabidia azterketako hausnarketa saiua egin ziranetik. Oraingo honetan, danon partehartzea derrigorrezkoa da, alkartiarene etorkizuna bertan erabagiko dalako: aurrera jarraitu ala ez, eta jarraitetaketan zertan eta zela jarraitu.

Gaixaren garrantzia ikusita, zure partehartzea eta ekarpena billera honetan biharrezkoa da. Hona hemen billerako gai zirindaria:

Aztergaixak:

- 1.- Sarrera eta ongi etorrira.
- 2.- Alkartiarene historiari gainbegiratu.
- 3.- Alkartiarene egoeria gaur.
- 4.- Zuzendaritza Batzordiarene proposamena etorkizunerako.
- 5.- Iritzi, iradokizun, eztabaiekia.
- 6.- Proposamena bozkau.
- 7.- Zuzendari Batzordia eta Lan-Taldiak eratu.
- 8.- Amaieria.

Adeittasunez, agur
Iñaki Olalde Alzelai
Laixan alkartiarene lehendakaria

Oñatin, 2008ko ilbaltzaren 26xan

Elkargik, Elkarrekiko Garantia Elkarteak, enpresa txiki eta ertainei finantza esparruan irtenbidea ematen die. 2006 urteaz geroztik, bulegoa du Bergaran. Elkartearendako Debarroa oso eskualde garrantzitsua dela azaldu du elkartearen Kontseilari Ordezkaririk Jesus Alberdik. Gaur egun, Elkargi osatzen duten 9.626 enpresetatik, 700 inguru daude Deba ibarrean.

Jesus Alberdi > Elkargiko Kontseilari Ordezkaririk

"Elkargik 700 bazkide ditu Debarroan; horrek entitatearen %7 suposatzen du"

M. BITERI/M. BIKUÑA > BERGARA

Jesus Alberdi Elkargiko Kontseilari Ordezkaririk da. Elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuetaz, joan zen urteko balorazioaz zein aurtengo aurreikuspenaz eta Bergaran duen bulegoaz hitz egin du Alberdik ondorengo lehenetan.

Zer da Elkargi, Elkarrekiko Garantia Elkarteak?

Enpresek sortu eta enpresendako lan egiten duen finantza-entitatea da. Helburua horien egitura eta finantza baldintzak etengabe hobetzea da, baldintza onenak dituzten abalen bitartez, baina baita, finantza-kudeaketa bidez ere. Horretarako, informazioa, trebakuntza eta aholkularitza eskaintzen du. Enpresa txikiak eta ertainek dituzten finantza arazoak aurre egiterakoan, erreferentia da. Sozietatea 1980an sortu zen, enpresa txiki eta ertainei finantza esparruko irtenbiderik egokienak emateko.

Noiz zabaldu zenuten bulegoa Bergaran?

Elkargik gaur egun indarrean duen Plan Estrategikoari jarraituz, 2006. urtean deszentralizazio prozesu bati ekin genion, besteak beste, Bergarako bulegoa zabalduz. Eskualdeko enpresei gure zerbitzua gerturatzeko helburuarekin egin genuen hori. Urte hartako ekainean ireki genuen Ibarra kaleko 30 zenbakian dagoen bulegoa, eta pozik gaude harrezkero izan duen harrerarekin.

Zer nolako informazioa ematen duzue bulego horretan?

Enpresei eskaintzen dizkiegun zerbitzuen berri ematen dugu, informazioa eskainiz eta dituzten beharrei irtenbideak proposatuz. Baina lan hori ez dugu bulegoan bakarrik egiten, enpresetara ere joaten gara. Debagoiena eta Debabarreneko enpresengandik hurbilago egoteko borondatearekin, Bergarako bulegoa zabaldu genuen.

Gainera, zerbitzu berria dugu: enpresek hirugarrenen aurrean fidantza edo garantiak behar dituztenean eta abalen beharra dutenean, prozesu horren tramitazio elektronikoa martxan jartzen lehenak izan gara. Gertutasunarekin batera, berehalakotasuna eskaintzen dugu.

Ibarreko zenbat enpresek egin duzue lan?

Ibarra aipatzean, Deba iba-



Irudian, Elkargiko Kontseilari Ordezkaririk Jesus Alberdi.

GOIENKARIA

BERGARAKO BULEGOA

"Oso pozik gaude 2006ko ekainean Bergaran zabaldu genuen bulegoak izandako harrerarekin"

rraz berba egiten ari garela kontuan hartu beharko litzateke: Debagoiena eta Debabarrena. Eskualde horretan, ia 700 bazkide ditugu eta horietatik, 40 bat joan zen urteko bazkide berriak dira. Beraz, eskualde horrek Elkargi sozietatearen %7 inguru ordezkatzen du. Esandako por-

ENPRESEN EZAUGARRIAK

"Enpresen %90 inguru, 50 langiletik beherakoak dira eta horietatik erdia, industria sektoreari dagokio"

zentaje hori oso garrantzitsua da, eta urtetik urtera handitzen doa. Ez da harrizkoa, azpiegitura berrien garapenarekin, enpresa berrien sorrerarekin, berrikuntzarekin eta Garaia Berrikuntza Gunearen garrantziarekin eraldaketa izugarria ematen ari da eta.

AURREIKUSPENAK

"Abalen jardueran %10eko hazkundera aurreratu dugu, eta aholkularitza zerbitzuan %8ko gorakada"

Zer ezaugarri dituzte enpresa horiek?

Gure bazkide diren enpresen ezaugarri berdinak dituzte. Gehienak, %70 inguru, 25 langile baino gutxiagoko enpresak dira eta ia guztiak, %90 inguru, 50 langiletik beherako enpresak dira; eta horietatik erdia, indus-

triaren sektoreari dagokio. Eraikuntza, zerbitzuak eta merkataritza sektoreek ere, ehuneko garrantzitsua ordezkatzen dute.

Zenbat bazkide dituzte guztira eta zer onura dituzte bazkide horiek?

Egun 9.626 enpresek osatzen dute Elkargi, eta hori da, gure jarduerarako bermerik handiena. Urtetik urtera, gure izaera berresten da, finantziatziora iristeko behar dituzten enpresa ugari dago eta; horiekin elkarlanean jarduten dugu. Bazkide egiteak, behar duzun finantziatziora baldintzarik onenetan iristeko garantia dakar. Bazkide izateko partizipazio bat baino ez da erosi behar, 480,81 eurokoa. Finantziario epearen bukaeran, enpresak bazkide izateari utzi nahi badio, itzuli egiten da diru hori.

Eguaztenean egin zenuten joan zen urteko datuen balantzea. Nolako da balorazioa?

Oso positiboa. Gure urte garrantzitsua izan da, azken hilabeteetan hainbeste aipatu den finantza eta kreditu krisiak, ez du eta guran eraginik izan. Ez hori bakarrik, urte osoan eduki dugun jarduerak erakutsi digu, Euskadiko eta Debagoieneko enpresek badutela nahikoa osasuna hazkunde ekonomikoarekin jarraitzeko eta hori berresteko.

Zeintzuk izan ziren joan zen urteko datu nagusienak?

Errekorrak gainditu ditugu: 272,5 milioi euro egin ditugu formalizatutako abaletan, joan zen urtean baino %7,6 gehiago. Guztira, 460 enpresa bazkide berri lortu ditugu. Horrez gain, 787 milioi ditugu indarreko arriskuan ditugunak; gure baliabide propioak 84 milioioak dira eta joan zen urteko zerga aurreko etekina 3,91 milioioak izan zen. Aurrekoak adibideak baino ez dira.

Zer aurreikuspen dituzte 2008 urterako?

Gure enpresan industriak duen pisua kontutan hartuta, eta horien osasuna kontuan hartuta, baikorrak izateko arrazoiak ditugu; ziurgabetasuna, kezka eta zalantza hor badaude ere. Horiei guztiei, berrikuntzarekin eta inbertsioarekin, besteak beste, aurre egin behar diegu. Eta horregatik, Elkargi %10eko hazkundera aurreratu dugu abalen jardueran eta %8koa aholkularitza zerbitzuan.

oharrak eta deialdiak

BERGARA

> Bertso-afaria egingo dute datorren astean

Bertso afaria egingo dute hilaren 16an, eta sarrerak salgai daude Arranon, Pol-Polen eta Korta-zaharren. Amaia Agirre eta Iker Zubeldia dira gonbidatuak. Artatse elkartearen izango da.

ESKORIATZA

> Hezkuntzaz jardungo du Virginia Imazek

Cómo educar y no morir en el intento delako hitzaldia egingo du Virginia Imazek etzi, eguaztena, Luis Ezeizan, 18:00etan. Denondako irekia da.

ARRASATE

> Herri Eskolako proiektuaren aurkezpena

Arrasate Herri Eskolak bere hezkuntza proiektua aurkeztuko du bihar, Bedoñaben, 18:00etan, eta etzi, Musakolan, 18:00etan.

OÑATI

> Gaztetxearen atxikimendu kanpaina

Oñatin gaztetxea egitearen aldeko kanpaina ireki du gazte talde batek. Sinadura emateko aukera dago honako webguneetan: *gaztetxiabai.awardspace.com* edo *www.oinatigaztetxiacreatuforo.com*.

OÑATI

> Jonan Fernandezek hitzaldia egingo du

Gatazken ebazpena bizitza pertsonal zein gizartean delako hitzal-

dia egingo du Baketik bake-zentroko koordinatzaile Jonan Fernandezek bihar, martitzena, kultura etxean, 18:30ean, Elkar-Hezik antolatuta.

OÑATI

> Ate irekiak Zuazola-Larraña BHI

Zuazola-Larraña BHI ikastetxean ate irekiak egingo dituzte gaur, astelehena, hasi eta egubakoitzera arte.

ESKORIATZA

> Aratusteetako argazkiak, Interneten

Herritarren Aratusteetako argazkiak webgunean jarriko ditu Udalak. Ipini nahi duenak helbide honetara bidali behar du argazkia: *kultura@eskoriatza.net*.

DEBAGOIENA

> EAJ: posta bidezko botoa eska daitekei

Martxoaren 9ko hauteskundeetan posta bidez bozkatu gura dute-

nek hala eskatzeko aukera dute batzokietan, otsailaren 28ra bitartean, astelehenetik egubakoitzera, 17:00etatik 19:00etara.

ARRASATE

> Euskararen jatorriaren gaineko berbaldia

Nondik dator euskarra? hitzaldi zikloaren barruan, Alfontso Martinez Lizarduikoa irakasleak egingo du berbaldia eguenean, hilak 13, Kulturateko Lora-mendi aretoan, arratsaldeko zazpitan, AEDK antolatuta.

DEBAGOIENA

> Eskiatzera irteera egingo dute gaztelekukoek

Valdezcarayko (Errioxa) eski pistetara joango dira Eskoriatza, Aretxabaleta eta Antzuolako gaztelekukoak otsailaren 23an. Egun osoko irteera izango da. 20 euro da, norberak bere materiala eramanda; bestela, 40.

ARRASATE

> Posta bidezko bozka, Alkartetxean

Arrasateko EAk jakinarazi du gaur, astelehena, hasita, posta bidezko botoa eska daitekeela Alkartetxean, 18:30etik 20:30era. Argibideetarako, deitu 943 71 27 88 telefonora.

ARETXABALETA

> Patxi Zabaletaren hitzaldia

Patxi Zabaleta Aretxabaletako Idazkariak hitzaldia egingo du eguaztenean, hilaren 13an, udaletxeko ganbaran, 19:00etan.

ARRASATE

> Mediterraneoan itsas bidaia, Abaroakoentzat

Abaroako bazkideek Mediterraneoan itsas bidaia egiteko aukera dute irailean. Bartzelona, Ibiza eta Montecarlo ikusiko dituzte, besteak beste. Izenematea otsailaren 6tik martxoaren 6ra bitartean egin behar da, euren egoitzan.

ARRASATE

> 58ko kintoek (1937an jaiotakoek), ospakizuna

58ko kintoek (1937an jaiotakoek) batzarra egingo dute martxoaren 8an; lehenengo, meza entzungo dute San Juan parrokiaren, eta gero, txikiteoa eta bazkaria Erreka jatetxean. Izena emateko, deitu Jose Riviereiri (943 79 10 57) edo Pedro Fernandezi (943 79 02 48).

etxeko leihotik



Oihane Agirre > GOITBko programazio zuzendaria

Aratusteak ospatzeko modu bitxia!

kusi al zenuen, Aratusteen gainean, Goiena Telebistak eguaztenean eskaintako saioa? Duda barik, indarra hartzen ari da Debagoienera jai hori. Arrasaten, eguraldiak gutxi lagundu bazuen ere, koadrila asko animatu ziren karroza eta guzti desfilean parte hartzerako. Batzuk tatuaje jositako agertu ziren, nor baino nor motor eleganteagoan. Zirkuak ere egin zuen geraldia: malabaristak, lehoiak, pailazoak... Piratak ere Debagoienera herri guztietan porturatu ziren. Iaz mozorro horixe aukeratu genuen koadrilan. Lagun trebeak badirenez taldean, izugarriko itsasontzia prestatu zuten. Han ibili ginen, kalean gora eta behera, haurrak barruan sartuta. Aurten, Aratusteak prestatzen hasi ginenean, segituan gogoratu ziren txikiak itsasontziaz. Marradun bandera jarri, adar itxurako atzealdea, arraunak bi aldeetara... bikingoen itsasontzi bihurtu genuen. Oraingoan ere lan txukuna egin zuten lagunak. Baina datorren urterako ez daukagu itsasontzirik, afaltzetik bueltatzean gutziz txikituta aurkitu genuen. Antza, batzuk, modu bitxian ospatzen dituzte Aratusteak Arrasaten!

“Duda barik, indarra hartzen ari dira Aratuste jaiak Debagoienera”

> Herri bazkarirako jatetxe bilakatu zen Aretxabaletako kiroldegia, bete egin zen. Bazkal ostean, berriz, dantzaleku. Eta datorren urteko Aratustetan, non elkartuko gara atxabaltarrok?

> Egan talde mitikoarekin bete zen Eskoriatzako plaza zapatu arratsaldean. Xabier Saldiasen oraindik ere plazak bete eta jendea dantzan jartzeko sasoian dagoela erakutsi zigen. Bibotea-gatik ote?

debagoiendarrak kanpoan

Iñaki Etxeberria > Oñati

"Oñatiko euskara eta jendearen jatorrasuna ekarriko nituzke Gasteizera"

MIRARI ALTUBE > BERGARA

Miguel postariaren eta Martina ile-apaintzailearen semea da Iñaki Etxeberria. 50 urte ditu eta Gasteizen bizi da ezkondu zenetik, dagoeneko 19 urte. Fagorren egin du lan 21 urtean, baina azken bi urteak Gasteizeko Aurrenak enpresan dago; industri zuzendaria da.

Noiz joan zinen Gasteizera?

Ezkondu nintzenez, 1989an, emazteak bertan egiten zuelako lan.

Baina oñatiarra da bera ere.

Bai, Mertxe Altuna, Pedro eta Txaroren alaba. Gasteizko udaletxean egiten du lan.

Gasteizera joan aurretik ere kanpoan bizi izandakoa zara, ezta, ikasle moduan?

Bai, 7 urte egon nintzen Donostian injineru ikasketak egiten. Zirrara handia eragin zidan Donostiara joateak, eta mundua zabaldu zitzaidan. Oñatiko bizimodutik at beste era bateko jendea eta beste izaera batekoak zudelako konturatu nintzen. Orduantxe zabaldu zitzaidan munduaren ikuspegia, baina sustraiak...

Eta zela ohitu zinen gero Gasteizeko bizimodura?

Aldaketa handia izan zen. Astelehenetik egubakoitzera, lanari begira egiten dugu bizimodua eta energia handia kentzen du. Horri gehituz gero semeen ardura, ba... pentsa, gustuko gauzak egiteko denborarik ez! Aste bukaeratan, ostera, auzokoekin erlaxatzen gara, baina egia esateko ez dugu harreman sako-



GOIENKARIA

Ezkondu eta Gasteizera

Ezkonduetakoan joan zen Gasteizera Iñaki Etxeberria, emazteak bertan egiten zuelako lan.

nik. Semeen martxa errespetatu eta familian egotea da gehien gustatzen zaiguna.

Eta seme-alabak Gasteizen jaiotakoak dira, ezta?

Bai, biak, eta gainera, "pateroak" dira goitik behera: Alaves eta Tau.

Zer gustatzen zaizu gehien Gasteizetik?

Ez da hiri handia, ezta herri bat ere. Samurra da jendearekin harremanak izatea, eta era berean inor ohartu gabe pasa zaitezke. Gasteizek zerbitzu asko eskaintzen ditu. Gainera, Oñatitik 45 minutura dago, eta mendiak oso hurbil ditu.

Oñatira sarri etortzen zara?

Ez, semeak nahiko helduak

dira, eta lagunak Gasteizen dituzenez bertan geratzen gara. Aste bukaerak atsedean hartzeko eta erlaxatzeko izaten dira. Lehentasuna orain, lagunak eta familiak daukate.

Oñatiko lagunekin kontaktuan jarraitzen duzu?


Bai, baina oso gutxitan ikusten gara: urtean pare bat aldiz eta Oñatira hurbiltzen garen aste bukaera bakarretan. Dena den, kontuan hartuta semeak gero eta autonomoagoak direla, emaztea eta biok gehiago joango gara hemendik aurrera.

Oñatiko zer eroango zenuke Gasteizera?

Euskara batetik, eta jendea hain hurbilekoa eta jatorra izateak, bestetik.

kale inkesta

Aurten Mundumira festa Bergaran egingo da, ekainean. Zer iruditzen zaizu?



Juan Manuel Iturralde
Erretiratua
Bergara

Ez naiz orain arte egin diren Mundumira festan izan. Hala ere, ezagutzen dut gutxi gora behera nolako jai mota den eta badakit kultura ezberdinen jai bat dela. Herrirako karga izan daiteke baina ona ere bada.



Lupe Salaberria
Langilea
Bergara

Ez dut jai hori ezagutzen eta ez dut orain arte horren berri izan. Dena den, oso ona izango da Bergararendako. Azokak asko gustatzen zaizkit eta gustura hartu dut berria. Aukera baldin badaukat joango naiz.



Enrike Trebiño
Erretiratua
Bergara

Oso ondo iruditzen zait aurten Mundumira Bergaran ospatzea. Aste bukaera horretan herrian geratuko gara festaz gozatzeko. Sarriago egon beharko lukete horrelako festa k. Gustura jasoko dugu albistea.



Nagore Laskurain
Langilea
Bergara

Goienkaria-n irakurrita jakin dut albistea. Ez naiz sekula izan Mundumira festan baina badaukat jai honen berri eta aurten gainera, badaukat asmoa disfrutatzeko. Horrelako egitasmoak beti dira onak herriarendako.

zorroztailea



Elena Laka

Ikurrak

"Unibertsitatean zapia baimentzeko lehen urratsak eman ditu Turkiak. Cevher-ek eta Tugç-ek goi mailako ikasketak egiteari uko egin zioten. Arrazoia, 1998tik indarrean zegoen debeku bat. Urte horretan, unibertsitateko lehen zapiak joatea debekatu zuten eta beraiek, musulmanak izanik, zapiarekin jantzeko eskubidea aldarrikatzen zuten. Atzo, Turkiako Legebiltzarrak lege hura indargabetezko bi emendekin onartu zituen"



Gara > 2008-02-10

A tentzioa eman zidan joan zen egunean Eibarren hogeitun inguruko neska batek zelako estiloarekin zeraman aurtengo modako poltsua, "it bag" a, aurretik sekula ikusi ez bezala: besoa ukondotik tolestuta, esku-ahurra itxita, eta poltsua ukondo parean katiatuta, gorputzari pegatu barik. Aurten modak agintzen duen arren, zaila estilo piska batekin eramaten, adibidez Sarah Jessica Parkeren argazkiren bat ez baduzu ikusi.

Poltsa ukondoan zintzilikatuta, eta burua zapi beltz batez estalita, musulmana. Harrez gero gehiagotan ere ikusi dut, batzuetan lagunekin, denak zapia buruan, denak modako poltsoarekin, baina estilotuena, bera.

Euskal Herri osoan oro har, ez dago, momentuz, inolako arazorik nahi duten emakumeek burua estalita eraman dezaten. Ez eta nahi duten gizonek eraman dezaten: txapela ondo onartuta dago. Ez dago, ezta ere, trabarik monjek euren beloak, apaizek lepoko zuria, umeek urrezko kateak, futboleko kamisetak, eskolako uniformeak eraman ditzaten, neskatxoei jaioberritan belarriak zulatu diezaieten. Hori guztia onartuta daukagu eta normaltasunean sartzen dugu. Baina zer gertatuko litzateke, adibidez guraso batzuk behin eta berriro mutikotxo bat gonaz jantzita eramango balute? Gizarte-zerbitzuek esku hartuko al lukete neska jantzita daramaten mutiko baten gurasoen kontra?

Garai batean kaikuak debekatu egon ziren, etorkizun hurbilean ez dakigu. Arropa guztiak dira ikur, tangak, markako arropak, modan dauden zapi palestinarrek, praka gaintetik ikusten diren kaltzontziloak. Gainean daramagun gehiena da ikur. Galdetu bestela zergaitik datozen beti politikoa Audi ilunetan, eta zergaitik horren beste gizonek (ia beti gizonek dira) imitatu nahi dituzten. Egiten ditugun gauza gehienak dira ikur edo sinbolo, kontua da zenbateraino egiten ditugun libre edo behartuta. Eta libreki egiten ditugula erantzuten badugu, zenbateraino garen zintzo geure buruarekin.

Horregaitik ez dit trabarik sortzen nire ondoko emakumeek zapia eraman ditzatela. Beraiek libreki erabaki badute, ez naiz ni izango ikur batzuk beste batzuren gaintetik ipiniko dituen.

irakurlearen txokoa

943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ZUZENKETA

AHT dela eta

Asteleheneko Goienkaria-ren 174. zenbakiko 4. orrialdean Abiadura Handiko Trenaren gainean argitaratu zen artikuluaren pasarte batzuk ez dira zuzenak. Urtarrilaren 19an Arrasateko Kulturaren batzar bat egin zen AHTren gainekoa. Batzar hartan, Kimetz Etxeberria ingeniariak argumentu batzuk erabili zituen AHTren aurkakoak. Batzarraren Etxeberria esandakoak jaso ziren artikuluan, baina Etxeberria berak esan duenez ez ziren zuzen jaso. Adibidez, artikuluan Etxeberriaren ahotan jarri zen Debagoiengan "kilometro bateko eremuan, egunean mila kamioi baino gehiago mugiaraziko" dituztela. Hori ez zuen esan Etxeberria eta ez da zuzena. Etxeberria esan zuen, "Durangaldeko proiektu tartek aztertuta, Elorrio eta Durango artean sortuko diren lur mugimendu guztiek, egunean 1.018 kamioi sortuko" dituztela.

Bestalde, artikuluan esaten zen Etxeberria "astakeriatzat" jo zuela egitasmoa. Berba hori ez zuen erabili Etxeberria. Hauxe esan zuen: "AHTren aldeko jarrera defendatzeko erabiltzen diren argudio asko eta asko gezurtatzea oso-oso garrantzitsua da, datu okerretan oinarrituak, manipulatuak eta egiazkoak ez direlako askotan".

ustek uste

Mirari Altube

Sustoaren ostean kamerak

Bergarak astindu ederra hartu du aste bukaeran. Sustoa lehenengo, eta zelakoa gainera, eta gero politikarien adierazpenak eta komunikabideen joan-etorriak. Zapatuan egindako elkarretaratze isilean agintariak elkartu ziren, herritarrak ere bai eta zela ez, komunikabideak. Telebistako kamera asko, irratiko mikrofonoak ere bai eta argazkilarik oraindik gehiago. Irudiak hartu eta hartu ibili ziren kamerak, elkarretaratzearenak, bai, eta udaletxeko balkoitik zintzilik dauden pankartenak. Gero kazetari bakoitzak gura duena esateko.

Berriro izango dira komunikabideak gaur, Bergaran, udaletxeko osoko bilkuren aretoan hain zuzen. Agurme Barruso alkateak zer esango duen zain daude kazetari asko.

"Garai batean kaikuak debekatu egon ziren, etorkizun hurbilean ez dakigu"

"Gainean daramagun gehiena da ikur"

Goienkaria

Argiraratzaila Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Edu Mendibil Erredakzioa Mirari Altube, Maider Arregi, Goitz Arana Oinarrizko diseinua Goli Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Maria Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



ASTELEHENEN GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRTITZIA orrialdean, edo kolaboratzaileek adierazitako iritziaren erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13 Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **ARRASATE**
Torturaren aurkako mozioa, bost alderdiren babesarekin > 10



> **ESKORIATZA**
Gaur hasi eta barikura bitartean Kultura Astea Luis Ezeiza ikastetxean > 13



> **ARETXABALETA**
Lapurretak direla eta, dendari eta tabernariak, kezkatuta daude > 13

ARRASATE > OMENALDIA JOSU OTADUIRI

Kooperatibetako batzar nagusietako lehen euskarazko ahotsari, agur

EKITALDIA

Gertuko lagun izan zutenek bete egin zuten Kulturateko gela, zapatuko omenaldian

HIRU EZAUGARRI

Gizon euskaltzalea, abertzalea eta langile porrokatua zela nabarmendu dute

GOIATZ ARANA > ARRASATE

Borrokalaria handia izan zen Josu Otadui, euskararen eta aberriaren alde lan asko egindako gizona. Hala kontatu digute bere lagunek. Abertzale berezia izan zela diote, Euskal Herria jomuga eta lanerako esparru izan zuena, eta langileen aberriaren aldekoa. Euskarari dagokionean, bera izan zen euskaraz hitz egiten lehena kooperatibetako batzar nagusietan, 1970 urte inguruan, eta AED elkartearen sorreran ere gogor jardun ei zuen, bazkide bila. Baina bazuen hiruga-



AURRESKUA Irudian, dantzaria aurreksua egiten, Albina Arana, Josu Otaduiaren alargunaren aurrean.

JOSETXO ARANZABAL

ren ezaugarri bat ere, gertutik ezagutu zutenek azpimarratu nahi izan dutena: jarraikortasuna. Finean, gizon osoa, bete, herrikoa eta lagun laguna izan zela azaldu digute.

Ezaugarri horiek guztiak batzen zituen pertsona izan zelako, akaso, deialdi zabalik egin beharrik ez zen izan zapatuan Kulturateko Loramendi gela betetzeko. Josu Otadui zenaren lagun

eta senitartekoak batu ziren bertan. "Elizkizun bat eginez esan genion agur pasa den abenduaren 24an, baina bere mundua ez zen erlijioso, eta horregatik, ekitaldi jendartekoago bat anto-

latu nahi izan dugu, inolako kutsurik gabekoa" argitu zigun bere lagun Joxe Mari Muxikak.

OMENALDIA

Txalapartarien saioarekin hasi zuten zapatuko omenaldi-ekitaldia; haren bizitzako pasarteetako batzuk gogoratu zituzten ondoren; eta koplak abestu zituzten hurrena, *Egun da Santimamiñe* doinuan: "... Irrifar eta atseginez, edozeinekin solasa, zure bultzada hor egongo da, ezta alferrikan pasa". Dantzari batek aurreksua dantzatu zuen, txistulariak lagunduta; Albina Arana alargunari lore eskaintza egin zioten; eta, *Agur Jauna* kantatuz, amaiera eman zioten ekitaldiari.

Omenaldiak iraun zuen bitartean, aurrean izan zituzten Josu Otadui zenaren argazkia eta Nafarroako bandera; Euskal Herria Nafarroako estatua izan zen garaiarekin liluratuta lanean diharduten Orreaga eta Nabaralde bezalako kultura taldeekin harreman estua izan zuen Arrasatekoak.

Goienaren eguneroko lanean ere egin zuen ekarpenik Josu Otadui, errementari ogibidea nahiz historiaren gainean zuen ezagutza tarteko.

BERE LAGUNEK ESANDAKOAK



Joseba Ariznabarreta
Laguna

Euskotar zintzo eta eredugarria zen, hiritartasun sakonekoa, eta beti zegoen prest Euskal Herriaren alde lan egiteko. Helburu horrekin antolatutako ekitaldi baten ere egon nintzen berarekin, hil baino urtebete lehenago.



Patxi Egibar
Laguna

Ezkertiarra zen oso eta borroka ugari egin behar izan zuen, baina sekulako sendotasuna zuen bere iritziak defendatzeko. Asko indartu ninduen bere izaerak; gizonak nolakoa izan behar duen ikasi nuen berarekin.

BIOGRAFIA

Errementaritzan lanean hasi eta kooperatiban erretiratu

Josu Otadui Belastegi Arrasaten jaio zen 1920ko maiatzaren 11n; lau seme-alabetako lehena izan zen. Eskola Txikian, Herri Eskolan eta Biteri Eskolan ibili zen. 12 urte zituenean, aita gaixotu, eta errementari hasi zen lanean, hari lekukoa hartuta. Goizeko seietan hasi eta iluntzeko zazpiak arte egiten zuen lan. Horretan jarraitu zuen aita hil zenean ere, baina ez zituen ikasketak alde batera utzi: eguneko jarduera bukatutakoan, klase partikularrak hartzen zituen eta marrazketa ikasketak ere egin zituen. 1957ra arte izan zuen ogibide errementaritzan. Urte horretan kooperatiban hasi zen lanean, eta bertan aritu zen erretiroa hartu zuen arte.

1936 urtean, gerra garaian, gudari izan nahi izan zuen, baina 16 urte zituen orduan, eta ez zuten onartu, gazteegia zela-eta. Handik gutxira, falangisten taldean sartu zen, bere burua salbu jartzeko. Hamazortzi urte besterik ez zituela, kartzela ezagutu zuen, lehendabiziko aldiz. 36 urterekin, Albina Aranarekin ezkondu zen, Arantzazun, eta hiru seme-alaba jaio dira elkartzeko horretatik.

Euskararekiko zaletasun handia izan zuen, eta lan handia egin zuen sindikalista moduan ere; ELAn egon zen afiliatua. 1965eko barne zatiketaren ondotik, *Movimiento Socialista Vasco*-n ere jardun zuen, baina Franco hil eta gero, ELAn aritu zen osteran.



Josu Otadui.

ARTXIBOA

ERRAUTSAK, UDALAITZEN

Pasa den abenduaren 23an hil zen, 87 urterekin. Udalaitez mendian bota zituzten errautsak, berak eskatu bezala. Oso maitea zuen toki hura.

POLITIKA > OTSAILEKO OSOKO BILKURA

Torturaren aurkako mozioa, bost alderdiren babesarekin

EAEk, EB-Zutik koalizioak (gobernua), EAJk eta Aralarrek adostu zuten mozioa

Portu eta Sarasolaren kasuan, Rubalcabak eta Zapaterok "gezurra esan" zutela salatu dute

UBANE MADERA > ARRASATE

Tortura eta tratu txarrak gaitzesen dituen mozioa onartu zuen udalbatzarrak eguneko osokoa. Eta alderdi politikoen gehien-goak nabarmendu zuen, bost alderdiren artean adostutako mozioa dela: EAEk, EB-Zutik koalizioak, EAJk, EAK eta Aralarrek.

Hori bai, mozioa lantzean, PSE-EEko zinegotziak joan egin ziren. Eta bozketa orduan, PPK kontra bozkatu zuen.

Kontuak kontu, mozioa onartu egin zuten. Haren arabera, Udalak zera dio: "Bai Rubalcaba ministroak bai Zapatero presidentek gezurra esan dute torturak estali eta ezkutatzeko". Hala ere, bi gazteek "jasan dituzten torturak direla eta eskatzen du ikerketa bat egiteko", gaineratu du. Eta horrekin batera, besteak



TORTURAK IRUDIKATUZ Hainbat herritarrek torturak irudikatzeke zabor poltsekin estali zituzten buruak.

U.M.

beste, "eskatzen dio Estatuko gobernuari derogatzeko lege antiterrorista eta bertan behera uzteko Audientzia Nazionala, salbuespen auzitegi baten isla baita".

Dena den, aurretik, aretoa bete zuten herritarrei hitza eman zien. Bi lagunek irakurri zituzten Iratxe Sorzabalek egindako tortura salaketa Guardia Zibilaren eskuetatik eta Urtzi Paul Larreak egindako tortura salaketa Ertzaintzaren eskuetatik. Irakurri bitartean, aretoko gainerako herritarrek buruak estali zituzten zabor poltsekin, torturak irudikatuz.

Eta irakurketa bukatzean, lekukotasun biak eta zabor poltsekin bat EAJren zinegotziari eman zizkieten, EAJ egin zuten eta erantzule, besteak beste, Ertzaintzak eragiten dituen usteko torturetz.

Rafa Urizarren EAJko kideak ez zuten onartu hori eta argudiatu zuen EAJ torturen aurka dagoela eta "tortura susmorik txikiena ere argitu egin behar dela".

Itziar Lamarain popularrak, berriz, adierazi zuen "torturen guztiz aurka dagoela, tortura guztien aurka". Baina gaineratu zuen bere "ideiak defendatzearen

etengabe babestuta egotea tortura fisiko eta psikologiko handia dela. Eta tortura orokorra dela ETAK ematen diena".

EAEren izenean, berriz, Oihana Aranburuk berba egin zuen, esanez tortura frankismotik existitzen dela eta "Estatuak etengabe" erabili duela, "helburu politikoekin". Gaineratu zuen, besteak beste, Ertzaintzak ere torturatu egin duela.

Kritikak kritika, bost alderdietako ordezkariak nabarmendu zuten garrantzitsua dela euren artean adostasuna lortzea.

POLITIKA

Batzorde Eragilea berri egin du EAk

U.M. > ARRASATE

Arrasateko Eusko Alkartasuna alderdiak Batzorde Eragilea berri egin du. Hain justu ere, Amaia Larrañaga da presidentea, Iñaki Aierbe idazkaria, Ainhoa Gallastegi diruzaina eta Josemari Urizar, Juan Antonio Barriocanal, Josemari Menika, Eugenio Gallastegi eta Pello Urizar dira bokalak.

BOTOA POSTAZ

Bestalde, jakinarazi du gaurtik (astelehena) aurrera, 18:30etik 20:30era Alkartetxean izango direla (Zuloaga kalea). Argibide gehiago behar izanez gero, 943 71 27 88 telefonora dei daiteke.

> HEZKUNTZA

Herri Eskola hezkuntza proiektua ezagutarazten

Matrikula garaia iristear dagoela eta, Arrasate Herri Eskolak bere hezkuntza proiektua ezagutarazteko batzarrak antolatu ditu, interesa duen edozein edukiko. Hain justu, oraingo astean bi batzar egingo dituzte, martitzenean bata (Bedoñaben), eta eguaztenean bestea (Musakolan), biak 18:00etan.

GARRAIO ZERBITZUA > URBANOAZTERGAI

Urbanoaren zerbitzua aztertuko du Udalak, aurten

Autobus urbanoaren zerbitzua Leintz Garraioak enpresak kudeatzen du eta 2010ean bukatzen zaie kontratua; ordurako egingo dute azterketa

UBANE MADERA > ARRASATE

Arrasateko autobus urbanoaren gaineko azterketa egingo du Udalak, aurten. Hala iragarri zuten 2008ko aurrekontuaren aurkezpenean. Kontua da Aralarrek eskaera aurkeztu duela autobus urbanoa Olandixo ingurura ere irits dadin ordu jakin batzuetan. Bada eskaera horri erantzunez, Zerbitzuen Saitetik jakinarazi dute urbanoaren gaineko azterketa orokorra egiteko asmoa duela Udalak.

Gaur egun Leintz Garraioak izeneko enpresak kudeatzen du autobus urbanoaren zerbitzua. Bada, Zerbitzu Saitetik adierazitakoaren arabera, 2010ean bukatzen zaie kontratua. Eta ordurako urbanoaren gaineko azterketa eginda izan gura dute, gero

zerbitzua adjudikatzeke. Aditerra emandakoaren arabera, hainbat zerbitzuak denboraz adjudikatu behar dira, izan ere, autobusak ezin dituzte egun batetik bestera ekarri, bereziki eraikitzen dituzte eta.

HERRITARREN ESKAERAK

Horren ondorioz, lehenbailehen abiaraziko dute urbanoaren gaineko azterketa. Eta horren barruan, Aralarrek egindako eskaeraz gainera, herritarrek egindako beste hainbat eskaera aztertuko dituztela kontatu du udal teknikariak. Adibidez, urbanoa San Josepe ingurura edo Altamira-Jose Luis Iñarra ingurura ere irits dadin eskatu dute. Baita gaur egun dagoen zerbitzua bikoizteko ere.



URBANOAZTERGAI Leintz Garraioak enpresako autobusa Arrasateko kalean.

UBANE MADERA

EUSKARA > KALE ERABILERA

Euskara gutxien erabiltzen da San Antonion, Labegaraietan eta Zubiaurren

2007ko euskararen kale erabileraren gaineko balorazioa kaleratu du Euskara Zerbitzuak

Nabarmenezkoa da azken urteotan helduetan gertatzen ari den pausoz pausoko igoera

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak 2007 urteko kale neurketaren gaineko balorazioa kaleratu berri du. Txosten honek kalean behaketa zuzenaren bidez lorturiko datuak eskaintzen ditu. Azaroko bost egunetan egin ziren neurketak, herriko lau gunetan; herritar gehien ibiltzen den lau zonaldetan, hain justu.

BILAKAERA

1983. urtean egin zuten lehen neurketa eta emaitza orokorra %33koa izan zen orduan. 2007an, berriz, 44,5ekoa izan da. Bilakaerari erreparatu gero, urtetik urtera hainbat gorabehera sumatzen dira, eta nahiz eta 2005, 2006 eta 2007ko emaitzak batez beste-koak baino altuagoak diren, itxaron egin behar da goranzko bilakaera garbi bat dagoen esateko, kaleratutako txostenak jasotzen duenez.

Edozein modutan, txostenak gehitzen du, horrek ez duela esan nahi euskararen erabilera guztiz egonkorra eta berdina

Azken urteetako bilakaera

URTEA	EHUNEKOA
1997	35,2
1998	41,3
1999	37,3
2000	47,2
2001	42,2
2002	36,4
2003	41,7
2004	36,9
2005	45,4
2006	52,8
2007	44,5

denik, oro har, gertatzen ari dena honako hau delako: adin-tarte batzuetan -helduetan, kasu- euskararen erabilera gorantz doa eta beste batzuetan -zaharretan, esaterako- beherantz. Haur eta gazteen kasuan, berriz, ez da une honetan bilakaera garbirik ikusten.



UMEEKIN GEHIAGO Haurrekin dihardutenean, beste adin tartekoan erabilera nabarmen igozten da.

GOIENKARIA

BALORAZIOA

Alde positiboan, bereziki, helduetan gertatzen ari den pausoz pausoko igoera da aipagarri. 2007ko emaitza 2006koa baino baxuagoa izan den arren -%37,0 eta %41,5, hurrenez hurren-, emaitza ona izan da batzuetan beste-koarekin konparatuta. Badirudi, gainera, igoera hori antzematen dela haurren presentziarik gabeko kasuetan ere. Era berean,

nahiz eta azken bi urteak salbuespenak izan, alde positiboan nabarmenezkoa da neska gazteek (15-24 urte bitartekoek) duten erabilera-maila altua: % 55 ingurukoa da.

Bestalde, alde negatiboan agertzen da Zubiaurre-San Antonio-Labegaraietako erabilera baxua. Horrekin batera, beste ondorio batzuk ere nabarmen-tzen ditu txostenak. Batetik, hau-

rreren presentziak beste adin-taldean erabileran duen eragina: haurrekin dihardutenean, beste adin-tartekoan erabilera nabarmen igozten da; urte batzuetan, haurren arteko erabilera-mailara iritsi eta gainditzera. Bestetik, aurreko 3 urteetako neurketetan umeen erabileran goranzko joera izan zen arren, aurten emaitza apala eman du eta badi-rudi geldituta dagoela.



GOIENKARIA

Baranda errotik atera zuten ezezagun batzuek

Martitzenetik eguaztenerako goizaldean, San Martin plazatik Oxirondo plazara igotzeko dauden eskaileretan, baranda errotik atera zuten ezezagun batzuek. Horrekin batera, eskaileretako hainbat maila ere apurtu zituzten. Udaltzainen arabera, hainbat laguneren artean egindako apurketa izan da; izan ere, indarra behar da halako baranda bere lekutik ateratzeko, zutikako zutabeei lotuta zegoen-eta. Udal langileek egunean bertan ekin zioten baranda konpontzeari, argazkian ikus daitekeen bezala.

> ARATUSTEAK

Udalak eskerrak eman nahi dizkie Aratuste-zapatuko kalejiran parte hartu zuten guztiei

Horrekin batera, barkamenak ere eskatu nahi dituzte Udalak zein Bedelkarrek, "arazo bat tarteko" ezin izan zutelako mozorro onenaren saria 00:30ean banatu, egitarauan iragarri bezala. Bestalde, gehitu dute Bedelkarrek emandako 160 euroko saria altzarugintza arloko lagun taldeak eraman zuela.

> HEZKUNTZA

Miguel Altuna institutuan ate irekien jardunaldiak egingo dituzte gaurtik hasita

Miguel Altuna Lanbide Heziketako institutuak lanbide heziketako jardunaldiak antolatu ditu. Gaur, astelehena, hasi eta egubakoitzera arte eskolako atea zabalik izango dituzte instalakuntzak ikusi nahi dituzten guztiendako. Bisitetarako ordutegia da: 09:00-13:30 eta 16:00-18:30.

> ZOZKETAK

Ipintza institutuko zozketako saria jakitera eman dute eta dagoeneko saria ere jaso daiteke

Ipintza institutuko ikasleek otarra zozketatzeko txartelak saltzen jardun zuten Aratuste-zapatuan. Hala, egin dute dagoeneko zozketa eta zenbaki irabazlea izan da: 935. Hori horrela, jakinaz dute zenbaki irabazlea duenak 943 76 31 42 zenbakira deitu behar duela saria jasotzeko.

INFORMATIKA > IKASTAROAK

Otsailerako hainbat mintegi, KZgunean

Ikastaroan eta mintegietan parte hartzeko izena alde aurretik eman behar da KZguneko bulegoan bertan

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Kultura etxean dagoen KZgunek hainbat mintegi eta ikastaro bat iragartzen ditu otsailerako. Mintegiak egun bakarrekoak dira, eta ordu batekoak, bikoak eta lauakoak, gaiaren arabera. Era berean, ikastaroa 20 ordukoa izango da.

HAMAR EGUNEKO IKASTAROA

Interneteko oinarritzako ezagutzak dituztenendako gai zehatz batzuen inguruko mintegiak iragartzen ditu KZgunek. Beheko taulan daude otsailerako iragartzen direnak, egun eta orduarekin. Bestalde, Interneti buruzko xehetasunak ezagutzeko 20 orduko ikastaroa emango da otsailaren 18tik 29ra. Ordenagailua ezagutu eta nabigatu eta posta elektronikoa erabiltzen ikasteko aukera egongo da, besteak beste. Hamar egunetan zehar emango den ikastaroa goizez izango da, 09:00etatik 11:00etara. Mintegietarako eta ikastarorako izena alde aurretik ematea aholka-

tzen du KZguneko tutore Izaskun Hernandok. "Aurretik komeni zaigu jakitea zenbat lagunek parte hartuko duten, gutxi egonez gero ikastaroa bertan behera geratzen da-eta". Izena emateko haxe da KZgunearen ordutegia: aste barruan 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:30era.

BESTE AUKERA BATZUK

Ikastaroez gain KZgunean nabigatzeko aukera dago. "Nabigazio gelan zazpi ordenagailu ditugu, eta jendea batez ere arratsaldetan etortzen da. Bestalde, prestakuntza gelan, ikastarorako, hamar ordenagailu ditugu", diosku Izaskun Hernandok.

KZ guneko mintegiak, otsailean

IKASTAROA	EGUNA	ORDUTEGIA
Enplegu bat sortu	Otsailaren 15ean	11:00-13:00
Sinadura elektronikoa	Otsailaren 18an	18:30-19:30
Sinadura elektronikoa	Otsailaren 27an	16:30-17:30
Irudi digitalen tratamendua	Otsailaren 25ean eta 28an	11:00-13:00
Bat-bateko mezularitza	Otsailaren 21ean eta 22an	18:30-20:30
Osasun txartel elektronikoa ezagutu	Otsailaren 18an	19:30-20:30
Osasun txartel elektronikoa ezagutu	Otsailaren 27an	17:30-18:30
Euskal Estatistika Erakundea	Otsailaren 14an	09:00-11:00
Bidaiari gisa, zure eskubideak	Otsailaren 19an	18:30-20:30
Komunikatu posta elektronikoz	Otsailaren 13an	09:00-11:00



ANTIA Argazkian, MIKen egoitza berria.

GOIENKARIA

IKERKETA > EGOITZA ALDAKETA

Antia Jauregia izango da MIKen egoitza berria

Guztira, 300 metro koadroko zabalera du Oñatiko Antia Jauregiak

tsitateko Enpresa Zientzien Fakultatearenak (ETEO) integratzeko prozesuak ekarri du egoitza aldaketa. Arduradumen esanetan "urrats garrantzitsua da zentroa zabaltzeko eta sendotzeko"

M.B. > OÑATI

MIK, Mondragon Innovation & Knowledge kudeaketako Gipuzkoako ikerketa-zentroak egoitza aldatu du Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunetik Oñatira. Hala, hemendik aurrera 300 metro koadro dituen Antia Jauregian izango du egoitza.

Era berean, instalazioak zabaltzeaz gain, sendotu egingo ditu. MIKen ikerketa-ahalmenak eta Mondragon Uniber-

ZENTRO PRIBATUA

Kudeaketako ikerketa-zentro pribatu hau 2001. urtean sortu zuten. Korporazio eta gizartea berrikuntzan dago espezialdua eta Mondragon Corporacion Cooperativa (MCC) taldeko kidea da. Era berean, ordezkariak ditu Donostian eta Bilbon.

Gainera, MIKek Europako I+G proiektu askotan parte hartzen du, besteak beste *Ariadna* proiektuan.



GOIENKARIA

Anjel Mari Fernandezi omenaldia egin zioten lankide eta lagunek

Otsailaren 3an bete ziren 25 urte Anjel Mari Fernandez oñatiarra hil zela, lehergailu batek eskuetan eztanda egin ondoren izandako zauriengatik. Urteurrena gogoratzeko haren lankide eta lagunak, San Martinen elkartu ziren haritz bat landatzeko. Ondoren, Elkarri elkarte-
an bildu ziren 1980. urtean Lemoizen aurka

egindako bizikleta martxako irudiak ikusteko. Anjel Mari oso ezaguna zen herrian gatzetxearen alde egindako lanarengatik eta herriko pareta askotan zeuden irudiak marrazteagatik. Haren lagunak hitzetan "pintura zale amorratua zen, eta askotan erakutsi ziren auzoko neska-mutikoei marrazkiak nola egin".

> HITZALDIA

Jonan Fernandezek hitzaldia Elkar Hezi ikastetxean

Elkar Hezi ikastetxeko guraso elkarteak antolatuta, Bake-tik zentroko koordinatzaile Jonan Fernandezek hitzaldia emango du bihar, martitzena. Kultura etxeko areto nagusian izango da ekitaldia, 18:30ean, eta egunerokotasunean sortzen diren gatazkei elkarriketaren bidez nola erantzun daiteken azalduko du Jonan Fernandezek. Hitzaldia irekia da.

> HEZKUNTZA

Zuazola-Larraña institutuan ate irekien jardunaldiak

Gaur hasi eta egubakoitzera arte Zuazola-Larraña institutuak duen eskaintzaren berri emateko ate irekien jardunaldiak antolatu ditu. Oñatiko Institutuko Lanbide Heziketako egoitza zabalik egongo da goizez eta arratsaldez: 09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 18:30era.

Bestalde, DBHko zentroa otsailaren 21ean bisitatu ahal izango da.

ESKORIATZA > HEZKUNTZA

Gaur hasi eta barikura bitartean Kultura Astea egingo dute Luis Ezeiza ikastetxean

Baketikek antolatutako antzerki foroan parte hartuko dute ikasleek gaur, Arantzazun

Birziklatze eta elikaduraren gaineko tailerrak eta ipuin kontaketak izango dira

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Luis Ezeiza ikastetxean Kultura Astea ospatuko dute gaurtik barikura bitartean. Egitarau zabala prestatu dute horretarako. Modu batean edo bestean, Kultura Aste horretan herri eskolako ikasle guztiak parte hartuko dutela jakinarazi digu hango irakasle Asier Kortabarriak.

Ekitaldiak gaur bertan hasiko dira. Lehen Hezkuntzako 3, 4. eta 5. mailako ikasleek Arantzazura joango dira, Baketikek antolatutako antzerki foroan parte hartzeko. Egun osoa pasako dute Arantzazun. Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoek, berriz, ordubeteko birziklatze tailerrak izango dituzte arratsaldean, 14:15etik 15:15era bitartean.

Biharko, martitzena, ekitaldi ugari daude aurreikusita. Kutxa Sozialak antolatuta, tailerrak edukiko dituzte Lehen Hez-



KULTURA ASTEA Joan zen urtean Luis Ezeiza ikastetxeko Kultura Astearen barruan egindako ekimena.

GOIENKARIA

kuntzakoek. Elikadurarekin lotutako gaiez jardungo dute. *Elikadura osasungarria, Ezberdin bizi eta Anorexia eta bulimia* izeneko tailerrak izango dituzte goizez zein arratsaldez.

GURASOENDAKO TAILERRAK

Lehen Hezkuntzako 5. mailako en gurasoek ere elikadura tailerretan parte hartzeko aukera izango dute, 14:15ean. Bitartean, 3. eta 4. mailako ikasleek birzi-

klutzen ikasiko dute, eta 1. eta 2. mailakoek Ray Bueno ipuin kontaketa izango dute.

Eguna amaitu aurretik, 18:00etan, janari osasungarrien gaineko tailerra izango dute

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako eta Haur Hezkuntzako gurasoek.

Eguaztenean, berriz, zaborra lantzen ikasiko dute ikastetxeko ikasle nagusiak. Goiz partean egingo dute hori. Arratsaldean, piano jolea entzun ahal izango dute Lehen Hezkuntzakoek. Bi eta bost urte bitarteko haurrak Ixabel Millet ipuin kontalariarekin izango dira. *Mari-zikin eta Martin Txiki* ipuina kontaketa die. Azkenik, 18:00etan, Virginia Imazek gurasoek zuzendutako hitzaldia eskainiko du, heziketaren gainekoa.

LIBURUTEGIKO EGUNA

Eguenean, liburutegiko eguna egingo dute Luis Ezeiza ikastetxean. Goizean zehar, ipuin kontaketa izango dira eta eguerdian, ipuin zozketa egingo da. Arratsaldean, hizkuntz jokoekin jolastuko dute Lehen Hezkuntzako ikasleek. Haur Hezkuntzakoek, berriz, eskulan tailerretan jardungo dute, 14:30etik 16:30era. Barikuan emango diote amaiera aurtengo Kultura Asteari. Marzel magoa hara joango da, *Gu ere artistak* magia ikuskizuna eskaintzera, 14:30etik 16:00ak.

Astelehenean Arantzazura egingo duten irteera izan ezik, gaitzako ekimen guztiak ikastetxean egingo direla azaldu du Kortabarriak.

ARETXABAETA > SEGURTASUNA

Dendariak eta tabernariak, kezkatuta lapurretekin

Inaxio Garro alkatearekin bildu dira eta segurtasun neurriak handiagotzeko eskatu diote; hartu beharreko neurriak aztertzen ari dira Udalean

M.B. > ARETXABAETA

Azkenaldian gertatzen ari diren lapurretekin arduratuta daude herriko dendetako eta tabernetako jabeak. Kezka horre adierazle, egindako sinadura bilketa. Ekimen horren bozeramaile Salva Rodriguezek esan du merkatarien eta dendarien %85 inguruk gauean segurtasun neurriak egin daitezela eskatu duela.

Jasotako sinadurekin udalera joan da Rodriguez eta Inaxio Garro alkatearekin bildu da. Bilera horretan tabernarien eta merkatarien artean dagoen kezka azaldu dio eta Udalak neurriak har ditzan eskatu dio: "Lehen udaltzainak ibiltzen ziren gauean. Egoerari buelta emateko hori

izango litzateke irtenbidea", azaldu du. Arrasate, Aretxabaeta eta Eskoriatzarako, gaur egun, Ertzaintzaren patruila bakarra dago gauean ere salatu du Rodriguezek.

UDALA, ZEHAZTU BARIK

Alkateari gai horren gainean galdetu diogu. Herrian dagoen kezka ulertzen duela esan du: "Argi ikusten dugu neurriak hartu behar ditugula". Baina, oraindik ez dute zehaztu zer egingo duten. "Azterketa sakona egin beharra dago oraindik".

Hala ere, "Ertzaintzaren laguntza beharko dugu, Aretxabaetan ez dago-eta udaltzainik gauean", adierazi du Garrok.



LAPURRETAK Aretxabaetan lapurreta asko egon dira azkenaldian, baita Durana kalean ere.

JOSETXO ARANZABAL



JOKOAN Argazkian, zapatu goizean jokaturako partidu bateko irudia.

JOSETXO ARANTZABAL

ANTZUOLA > KIROLA

Hamaika bikote herriko frontenis txapelketan

Partiduak egubakoitz, zapatu eta domeketan izango dira eta finala martxoaren 16an

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Egubakoitzean, otsailaren 8an, hasi zen Herriko Frontenis Txapelketaren bigarren edizioa.

Hamaika bikotek eman dute izena aurreko txapelketan parte hartzeko. Lehiakideen artean daude iaz txapelketa irabazi zutenak, baita bigarren eta hirugarren tokian sailkatu zirenak ere. Juanlu Aranburu kirol teknikariak esan digunez, "guztiak errebantxararako sekulako gogoia dute". Hortaz, gaurtik hasita lagun arteko lehia girorik ez da faltako asteburuetan frontoian.

LIGA SISTEMA JARRAITUTA

Partaideak bi taldetan banatu dituzte, eta euren artean liga jokatu ostean, talde bakoitzeko lehenengo bi bikoteak finalerdietarako sailkatuko dira. Finalerdietako irabazleek martxoaren 16ko finalen jardungo dute.

Martxoaren 16ko finalera bitartean egubakoitz iluntzetan eta zapatu eta domeka goizetan jokatu dituzte partiduak pilotalekuan. Egutegia parte hartzaileek eurek adostu dute, eta baliteke aste batzuetan esandako egun guztietan partiduak ez egotea.

Kirol Zerbitzutik esan digutenez, "hau guztia posible izan da herritarren gogoarengatik. Udalak herri lehiaketak bultzatu nahi dituelako; eta Loramendi Kirolak dendaren laguntzarengatik".

LEHEN EMAITZAK

Asteburuan jokaturako partiduetan honako emaitza hauek izan dira: Rodriguez-Mujika, 30; Iturbe-Pescador, 17. Seguro-Aranguren, 30; Jauregi-Agüero 12. Eta Sanchez-Idiakez, 30; Berraondo Martinez, 8. Larrea-Fernandez eta Iturbe-Pescador bikoteen arteko partidua gaur astelehena jokatuko dute, 19:00etan. Aste barruan Iparragirre-Iturbe eta Toledo Manso bikoteek jokatuko dute.

ELGETA > IKUS-ENTZUNEZKOAK

Ikus-entzunezkoak Elgetaren kokapena, historia eta egungo aisia eskaintza biltzen ditu

25 minutu irauten duen ikus-entzunezkoak dagoeneko salgai dago bost eurotan Espaloian, Ana Mariren dendan eta udaletxean

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Eskuragarri dago Galdare enpresak Elgetako Udalarendako egin-dako *Barne barnetik Elgeta* ikus-entzunezkoak.

Eguenean, hilaren 7an, egin zuten aurkezpen ekitaldia Espaloian. Kafe antzokiko pantaila

handian eman zuten 25 minutu irauten duen ikus-entzunezkoak. Bertan izan ziren, besteak beste, turismo zinegotzi Ederne Alberdi eta Galdare enpresako ordezkari Alberto Urigoitia.

"Elgeta herri txikia izanik kultura eskaintza handia dauka", esan zuen Galdareko Alberto Urigoitia. "Gipuzkoa osoan beste 30 udalerriren gaineko ikus-entzunezkoak egin ditugu eta izugarria da hemen dagoen mugimendua".

TURISMO PROMOZIOARAKO

Herritarrek eskuragarri dute ikus-entzunezkoak bost eurotan. "Mila ale atera ditugu eta Ana

Mariren dendan zein Espaloian daude salgai", adierazi zuen turismo zinegotzi Ederne Alberdik. "Turismo promoziorako ere erabiliko dugu", gaineratu zuen.

Galdare enpresa turismo promoziorako produktuak espezializatuta dago. "FITUR azokan izan gara eta Euskal Herriko hainbat herriren DVDak erakutsi ditugu bertan. Interneten dugun telebista ere, travel telebista, zintzilikatuta daude bideo horiek. Laster jarriko dugu Elgetako ere", azaldu du Urigoitia.

Ikus-entzunezkoak Elgetaren kokapena, historia eta herriak egun eskaintzen duen aisi proposamenak jasotzen ditu.

ARAMAIO > MANUEL LEKUONA SARIA

Sabin Salaberriak Aramaion jasoko du Lekuona saria

Eusko Ikaskuntzak emandako saria Aramaion jasoko du Sabin Salaberria organo-jotzaile aramaioarrak, berak hala eskatuta

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO


Apirilaren 10ean jasoko du Sabin Salaberriak, organo-jotzaile aramaioarrak, Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria. Eusko Ikaskuntzak saria non jaso nahi duen erabakitze aukera eman dio Sabin Salaberriari. Organo-jotzaileak Aramaioko herria aukeratu du egun berezi horretarako.

Salaberriak azaldu zuen badakiela saria Gasteizen jasoz gero, jende gehiago hurbilduko zela ekitaldira, baina Aramaio asko maite duela eta bere sorterrian jasoko du, azkenean, Lekuona saria.

Eusko Ikaskuntza da ekitaldi guztia antolatuko duena, Udalak, baina, eraikina ipiniko du. Ekitaldia kultura etxean egitea erabaki dute, pleno aretoa txiki gelditu daitekeela uste dute eta. Udaleko Kultura sailetik azaldu dute oraindik egitaraua zehazteke dagoela, baina saria eguerdi inguruan emango diotela, meza ostean. Aramaioko Bixente Goikoetxea Abesbatzakoak, bestetik, Sabin Salaberriaren kantuak entseatzeko dabilza azken asteotan. Uda-

lak opari berezia egin nahi zion organo-jotzaileari, eta saria ematerako orduan, abesbatzakoek Salaberriaren abestiak kantatuko dituzte.

Udaletik ez dakite nor etorriko den ekitaldira, baina badakite Eusko Jaurlaritzako zenbait ordezkari izango direla bertan. Lehendakariak ere banatu izan du Manuel Lekuona saria, baina oraindik ez dago jakiterik Ibarretxe Aramaiora etorriko den ala ez. Aramaioko Udalak oso pozik hartu du Sabin Salaberriaren erabakia.



Sabin Salaberria.

GOIENKARIA

LEINTZ GATZAGA > OSOKO BILKURA

Ohiko osoko bilkura eguaztenean

Udal aurrekontua gertatzen dabil udalbatza lehenbailehen onartzeko; eguaztenerako ez badute gertu apirilean onartuko dute

M.B./M.A. > LEINTZ GATZAGA

Ohiko osoko bilkura egingo du Gatzagako udalbatzak eguaztenean, hilak 13. 2008ko aurrekontua gertatzen dabil Udala azken asteotan, baina ez dakite eguaztenerako gertu izango duten: "Egunak gainera etorri zaizkigu eta ez dakit eguazteneko gai zerrendan sartu ahal izango dugun", argitu digu Eusebio Villar alkateak. Hainbat inbertsio aurreikusi dituzte onartu gura duten aurrekontuan, tartean, Eugenio Otsoa Gatz Museoa gas bonbona jartzeari. Eguazteneko gai zerrendan ez badute sartzen apiril arte

atzeratuko lukete Udal aurrekontuaren onarpena, ohiko osoko bilkurak bi hilabete behin egiten dituztelako.

HAUTESKUNDE-MAHAIA

Hauteskunde-mahaian egongo diren herritarren zozketa egingo dute eguazteneko osoko bilkuran. Bederatzi herritarren izenak hautatuko dituzte, titularrak eta ordezkariak, eta hurrengo egunean jakinarazpena jasoko dute etxean, erabilera-liburuarekin batera. Erabaki horren aurka alegazioak aurkezteko epea otsailaren 23an bukatuko da.


Kirola




> **FUTBOLA**
Preferente mailan
Aloñak Mendik,
UDAK eta Mondrak
galdu > 16



> **ESKUBALOIA**
Aloña Mendiko
neskek alde
handia atera
irabazi zuten > 19



> **GIMNASIA
ERRITMIKOA**
Bergarakoak eta
arrasatekoak
garaipenak > 19



> **ELKARRIZKETA**
Iñaki Otxoa de
Oltza
alpinistarekin
berbetan > 20

Mikel Etxabek (Aretxabale-
ta,1978) ibilbide luzea darama
futbolean. Realeko azpiko kate-

gorietan bederatzi urte eman
zituena eta harrezkero Real
Union, Barakaldo, Xerez eta

Eibarren ibili da. Denboraldi
bikaina egin zuen iaz Eibarren
eta, gainera, 2.A mailara igotzea

lortu zuten. Lesio eta ebakun-
tza baten ondorioz, aurten ez
du jokatzetik izan oraindik.

Mikel Etxabe > Eibar futbol taldeko jokalaria

"Errekuperazioa luzatu egin da eta ez dut nahi presaka ibili taldera bueltatzeko"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Aurten futbolaren alde iluna bizi-
tzea tokatu zaio Mikel Etxaberi.
Uztailean egin zioten ebakuntza
eskumako belaunean eta errekupe-
razio bidean da oraindik; joan den
astean adiskidetasuneko partidu bat
jokatu zuen Ondarroan eta gero eta
gertuagoa dauka berdegunera itzul-
tzea. Atzo izan ginen berarekin,
Eibar-Celta partiduaren atarian.
Taldekideen garaipenarekin (2-1)
gozatu zuen Etxabek.

**Uste baino buruhauste gehia-
go eman dizu lesioak, ala?**

Bai, errekupeazio epeak
luzatuz joan dira eta hori izan da
gogorrena: ikustea medikuek eta
prestatzaileek agindutakoa bete-
tzen nuela, gimnasioan ordu asko
egiten nituela eta molestiak guz-
tiz desagertzen ez zirela. Gorabe-
hera asko izan dira: batzutan
ondo sentitzen nuen belauna eta
berriro azaltzen ziren arazoak.
Hobe da eperik ez markatzea,
astetik atera joatea eta poliki-
poliki erritmoa hartzen joatea.
Guztiz ondo nagoenean, orduan
izango da zelaira bueltatzeko
unea. Hobe presekin ez ibiltzea.

**Zelan ikusi zenuen zure burua
joan den astean Ondarroan
jokatutako partiduan?**

Sentsazio onak izan nituen eta
hori da inportanteena. Argi dago
horrelako partidu bat ezin daite-
keela parekatu 2. mailako bate-
kin. Intentsitateak ez dauka zeri-
kusirik baina berriro partidu bat
jokatu ahal izatea oso berezia
izan zen niretzat. Ea laster eki-
pora itzultzerik daukadan...

**Harrera beroa eskaini zizuten
taldekideek entrenamendueta-
ra itzuli zinenean...**

Bai, hainbat astez gimnasio-
an bakarka entrenatu eta gero,
abenduan itzuli nintzen taldera
eta txaloka hartu ninduten tal-
dekideek. Momentu dibertigar-
ria izan zen, eskertzen den horie-



Mikel Etxabe Ipuruara hurbildu zen atzo, Eibar eta Celtaren arteko partidua ikustera.

JOSETXO ARANTZABAL

takoa. Giro ona daukagu talde-
an, zalantzarik ez.

**Askok esaten dute talde bere-
zia dela Eibar. Zerk bereizten
ditu armeroak?**

Kanpotik datorren jendea txip
horrekin etortzen da Eibarrera.
Taldea umila, langilea, borroka
handikoa dela dakite eta argi
dago hemen ez dagoela izarririk.
Gainera, futboleko zerbait lortu
nahi duen jendea etortzen da eta
borroka eta lana eskatu beharrik

ADISKIDETASUNEN PARTIDUA

**"Sentsazio onak izan
nituen joan den astean
Ondarroan eta hori da
inportanteena"**

EIBAR ETA REALA

**"Ea mailari eusteko 50
puntu horiek laster
lortzen ditugun; Reala,
aldiz, ondo ikusten dut"**

ez dago. Guztiok dakigu non gau-
den eta zer egin behar dugun
aurrera ateratzeko. Dinamika
horren barruan sartzeko ez dago
arazorik.

**Topikoa da, baina asko sufri-
tzen al da harmailan?**

Topikoa da baina egia boro-
bila ere bai. Harmailatik gauzak
askoz errazago ikusten dira eta
zelaian egon nahi duzu, hain
garbi ikusten duzun jokaldi hori
laguntzen. Baina gauza ezberdi-

na da zelaian egotea. Orduan
zailagoa da hutsuneak eta gol
aukerak sortzea. Eta taldeak
ezin duenean, gauza gutxi egin
dezakezu harmailatik, animatu
baino ez...

**Ipuruako partidu guztietara
etortzen zara?**

Bai, ahal badut beti etortzen
naiz, eta baita etxetik hurbil joka-
tzen ditugun kanpoko partidueta-
ra, Gasteizera edo Donostiara.
Aurreko zapatuan Anoetan egon
nintzen, Realaren kontrako der-
bian.

Nola bizi izan zenuen derbia?

Sufritzen... Partiduaren ata-
rian Labaka eta Mikel Aranbu-
ru agurtu nituen Realean egon
nintzen sasoiatik ezagutzen ditu-
dalako, baina gero Eibarren alde
egitea tokatzen zen... Lehen
zatian gu izan ginen nagusi eta
partidua guretako izango zela
uste nuen... Hala ere, partidu
amaieran bi penalti egin genituen
eta eskerrak epaileak ez zuela
ezertxo adierazi... Berdinketa oso
positiboa izan zen guretako; Rea-
laren kontra Anoetan berdintzea
ez dago edonoren esku. Eta gure
zaleentzat egun berezia izan zen,
zer esanik ez.

**Egidon irabazi eta gero, Rea-
lari buruz zer?**

Nahiz eta giroa nahasia egon,
jokalariak zentratuta ikusten
ditut eta azken sei partiduetara
aukerekin heltzen bada, Realak
esperientzia du bere alde. Lagun-
ak dauzkate Realean eta asko
poztuko nintzateke lehen maila-
ra itzuliko balitz.

**Mailari eusteko urratsa
garrantzitsua eman du Eiba-
rrek gaur, Celtaren aurka gai-
nera...**

Gure asmoa horixe da: lehen-
bailehen 50 puntu izatera iritsi.
Orain 33 dauzkagu. Beraz, helbu-
rua gero eta gertuagoa daukagu.

PREFERENTEA > ALOÑA MENDI-ORDIZIA

Bigarren zatian gol aukerak izan arren ez zuten asmatu sartzen

ALOÑA MENDI

1-3

ORDIZIA

MIRARI ALTUBE > OÑATI

Galdu egin du berriro Aloñak. Emaitzak adierazten duena baino parekatuagoa izan zen partida, baina lehen zatian oldarkortasun apur bat falta izan zitzaion oñatiarrei eta bi gol egin zizkieten ordiziarrek. "Lehenengo golaren errua geurea izan da, defentsa lanetan ez garelako behar bezala egon. Eta bigarrena, ostera, argi eta garbi jokoan izan da", azaldu digu Josu Zubia entrenatzaileak ikusitako moduan. Oñatiarren gola, gero, Xabi Elgarrestak egin zuen.

Bigarren zatian hobeto ibili ziren Aloñako mutilak, eta entrenatzailearen iritziz berdinketa ere merezi izan zuten. Izan ere, golak sartzeko hainbat aukera izan zituzten, baina ezin asmatu ibili ziren: "Geu izan gara gehiago bigarren zatian, baina golik ez bada sartzen alferrik. Lau bat aukera izan ditugu, eta lehen samur asmatzen bagenuen golekin orain ezinean gabiltza",



NORGEHIAGOKA Oñatiarren ordiziarrei aurre egin nahian.

JOSETXO ARANTZABAL

adierazi du Zubiak. Eta 95. minutuan Ordiziak hirugarren gola sartu zuen.

KONFIANTZA BERRESKURATZEKO
Aurrera begiratu gura du Oñati-ko taldeak: "Egutegi zaila dauka-

gu aurrez aurre, eta etxeko partiduak, behintzat, irabazi egin behar ditugu. Inork ez du oparitzen ezer, eta geure lanarekin egin behar dugu aurrera", adierazi du Zubiak. Taldeak zer behar duen bolada txarrari buelta emateko galdetuta argi dauka entrenatzaileak: "Partidu bat irabazi beharra daukagu. Horrek konfiantza handia emango liguke. Horretarako zer egin behar dugun? Golak sartzeko daukagun larritasuna albora utzi".

PREFERENTEA > IDIAZABAL-ARETXABAETA

Partidu amaierako golari esker hiru puntuak etxera

IDIAZABAL

1-2

ARETXABAETA

M.A. > BERGARA

Idiazabalen jokatu zuen 21. jardunaldiko partidua Aretxabaletak zapatu arratsaldean, eta hiru puntuak eskuratuta itzuli zen etxera. Lehenengo zatian ez zuten aparteko ezer egin jokalariek, eta ez zen golik izan. Bigarren zatia hasi orduko, bigarren minutuan hain zuzen, gola sartu zuen Igor Arriagak. Gol horren ostean aukera garbiak izan zituzten Igor Arenazaren mutilek, baina ez zuten lortu baloia sarean sartzerik. Eta hala zebiltzala etxekoen gola iritsi zen. Partidua bukatzekotan zegoela Iban Lopezek bigarren gola egin zuen Aretxabaletarendako.



ARETXABAETA Bigarren zatian iritsi ziren gol guztiak.

ARTXIBOA

Pozik azaldu zen Arenaza lortutako emaitzarekin: "Oso garrantzitsua zen partidua irabaztea goiko postuetan sartzeko, eta halaxe egin dugu. Urte berriaz geroztik laugarren partidua irabazi dugu jarraian, eta oso pozik gaude".

ETXEAN ERE PUNTUEI EUTSI

Hala, 5. postuan dago orain Aretxabaleta (34). Hurrengo partidua etxean jokatu du Anaitasunaren aurka. "Etxean ere indartsu ibili behar dugu, eta puntuak eutsi egin behar diegu", iragarri digu Arenazak.

PREFERENTEA

Lehen zatian hiru gol aurka Mondrak

M.A. > BERGARA

Partidu eskasa egin zuen Mondrak Hernanin, zapatuan, eta 3-1 galdu zuen. Lehenengo zatian sartu zizkion Hernanik hiru golak, eta nahiko erabakita geratu zen orduan partidua. "Parekatuta ibili gara, baina zorrea izan dute etxekoek, eta aise sartu dizkigute hiru gol", azaldu digu Igor Gordobil entrenatzaileak. Bigarren zatian jokoa egiten saiatu ziren arrasatearrak, baina hiru gol aurka izanda ezin eman buelta markagailuari. Lazpiurrek sartu zuen Mondraren gol bakarra.

Zortzigarren postuan dago orain Mondra (32). "Partidu guztiak dira erabakigarriak, eta besteei begira egon beharrean geure jokoa egin behar dugu guk", adierazi du Gordobilek.

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Real Union	40	21
2. Ordizia	39	21
3. Trintxerpe	38	21
4. Berio	38	21
5. Aretxabaleta	34	21
6. Aurrera de Ondarroa	33	21
7. Hernani	32	21
8. Mondra	32	21
9. Euskalduna	29	21
10. Hondarribia	27	21
11. EHU Vasconia	24	21
12. Aloña Mendi	24	21
13. Idiazabal	24	21
14. Anaitasuna	23	21
15. Zestoa	21	21
16. Eibartarrak	20	21
17. Zumaiaiko	20	21
18. Touring	18	21

Emaitzak

Real Union-Hondarribia	1-1
EHU Vasconia-Berio	1-1
Aloña Mendi-Ordizia	1-3
Zestoa-Euskalduna	0-0
Idiazabal-Aretxabaleta	1-2
Anaitasuna-Aurrera de Ondarroa	0-1
Eibartarrak-Touring	1-0
Hernani-Mondra	3-1
Zumaiaiko-Trintxerpe	1-1

Hurrengoak

Real Union-Zumaiaiko	
Hondarribia-EHU Vasconia	
Berio-Aloña Mendi	
Ordizia-Zestoa	
Euskalduna-Idiazabal	
Aretxabaleta-Anaitasuna	
Aurrera de Ondarroa-Eibartarrak	
Touring-Hernani	
Mondra-Trintxerpe	

BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONALA

Mutriku-Bergara	1-2
Lagun Onak-Antzuola	0-2

BIGARREN ERREGIONALA

Aretxabaleta-Anaitasuna	1-0
BTLS-Dunboa Eguzki	3-1
Union Txiki-Mondra	3-1

BIGARREN ERREGIONALA, KOPA

Segura-Elgeta	0-3
---------------	-----

OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA

Bergara-Aretxabaleta	2-3
----------------------	-----

OHOREZKO GAZTEAK, KOPA ETA

JAITSIERA FASEA	
Mondra-Hernani	1-2

OHOREZKO KADETEAK, IGOERA

Bergara-Ordizia	1-2
Antiguoko-Aloña Mendi	1-2

LEHEN MAILAKO GAZTEAK, IGOERA

Aretxabaleta B Arizmendi-Oiartzun	0-3
-----------------------------------	-----

OHOREZKO MAILAKO KADETEAK, IGOERA

IGOERA	
Aloña Mendi-Hondarribi	3-1
Antiguoko-Bergara	3-0


LEHEN MAILAKO KADETEAK, IGOERA

Ekintza-Arrasate	1-6
Behobia-Aretxabaleta B	1-2

EMAKUMEZKOEN, KOPA

Arizmendi B-Bergara	1-9
Mutriku-Arizmendi	6-2

Debagoieneko WEBGUNEAK



AHOLKULARITZAK

ASEGI
www.asegim.com
ESTRADÓS
www.consultoriaestrados.com
LIZKER
www.lizker.com

AKADEMIAK
BASTIDA
www.bastida.es

ALTZARIAK ETA APAINKETAK
BZ SISTEMAS
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas

ANTZINAKO ALTZARIAK
ZUMADIA
www.zumadia.com

ARETOAK
360 ARETOA
www.360aretoa.com

ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK
MARIA JESUS
www.mjargazki.com

AROTZEGIAK
ARREGI
www.goiena.net/blogak/arregi
AZKARATE
www.goiena.net/blogak/azkarate
UGARTE
www.goiena.net/blogak/ugartearotza

ARKITEKTURA ESTUDIOA
BIARK
www.goiena.net/blogak/biark

ARRANDEGIAK
ITSAS EDER
www.goiena.net/blogak/itxaseder

ASEGURUAK
BRIZ ASEGURUAK
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak
LAGUN ARO
www.seguros lagunaro.com
WINTERTHUR
www.axawinterthur.es

AUTO - KONTZESIONARIOAK
4QUATTRO4
www.4quattro4.com

BIDAIA AGENTZIAK
BARCELO
www.barceloviajes.com

BITXITEGI TAILERRA
OSKAR VITORIA
www.oskarvitoria.com

EGUZKI OIHALAK
TOLDOS LETE
www.toldoslete.com

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK
ARETXARGI
www.goiena.net/blogak/aretxargi
GORLA
www.goiena.net/blogak/gorla

ELEKTRIZITATE MATERIALAK
SETALDE
www.setalde.com

ELKARTEAK
EUSKAL HERRIKO MAHAI-FUTBOL
FEDERAZIOA
www.goiena.net/blogak/ehmff

ERAIKUNTZAK
CONSTRULAN
www.construlansl.com

ERROTULOAK
PANDO
www.goiena.net/blogak/pando
ROTUDENAK
www.rotudenak.com

ESKULANAK
IZEDER
www.goiena.net/blogak/izeder

ESTETIKA ZENTROAK
ANGELA
www.angelaestetika.net
GUZTIZ EDER
www.goiena.net/blogak/guztizeder

LILURA
www.goiena.net/blogak/lilura
MAIER
www.goiena.net/blogak/richimaier

FISIOTERAPIA ZENTROA
EKIN
www.goiena.net/blogak/ekin

FORMAZIOA
LEGE SOZIOLOGIA INSTITUTUA
www.iisj.es

GARAJEAK / KONPONKETA
AMG AUTOAK
www.amgautoak.com
AUTOS ARETXA
www.autosaretxa.com
GALLASTEGI MOTOR SPORT
www.goiena.net/blogak/gallastegi
JC RACING
www.goiena.net/blogak/jcracing

GARBIKETAK
HEMEN
www.hemen-garbiaketak.com
DENETIK GARBITASUN
MEKANIZATUA
www.goiena.net/blogak/denetik

GIMNASIOAK
IRUDI SPORT
www.goiena.net/blogak/irudisport
ZAINDUZ
www.goiena.net/blogak/zainduz

GOZOGINTZA EKOLOGIKOA
ETA INTEGRALA
GALGORRI
www.goiena.net/blogak/galgorri

HARATEGIA
LANDALUZE
www.goiena.net/blogak/galgorri

HAUR PARKEAK
OKIPARK S.L
www.goiena.net/blogak/okipark

HESTEBETEAK
URDEKI
www.goiena.net/blogak/urdeki

HIZKUNTZA AKADEMIAK
MONDRAGON LINGUA
www.mondragonlingua.com
LA PUERTA AL INGLES
www.goiena.net/blogak/puerta-ingles

HOTELAK
HOTEL MONDRAGON
www.hotelmondragon.com

IKASTETXEAK
ARETXABALETA INSTITUTUA
www.iaretxabaleta.com
ARIZMENDI IKASTOLA
www.arizmendi.ikastola.net
ELKAR-HEZI IKASTETXEA
www.elkarhezi.com
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
www.mondragon.edu

ILE-APAINDEGIAK
RICHI
www.goiena.net/blogak/richimaier
KIZKUR
www.kizkur.com

INDUSTRIA HORNIDURAK
SUMINISTROS UGARTE
www.suministrosugarte.com

INFORMATIKA
DCA COMPANY
www.dcacompany.com
ARITU
www.aritu.com

INGENIARI GEOLOGIKOA
HARRILUR
www.harrilur.com

INMOBILIARIAK
KOROSTI
www.inmikorosti.com

INPRIMATEGIA
EGUZKIGRAF
www.goiena.net/blogak/eguzkigraf

ITURGINTZA ETA BEROGINTZA
URBIETA
www.goiena.net/blogak/urbieta
URKO MANTENIMIENTO, S.L.
www.goiena.net/blogak/urko

JANARIAK
GERTU
www.goiena.net/blogak/gertu
ARANTXA PRODUKTU FRESKOAK
www.goiena.net/blogak/arantxa

JANTZI DENDAK
MARKIEGI
www.goiena.net/blogak/markiegi
UDALAITZ
www.goiena.net/blogak/udalaitz

JATETXEAK
BASTER ALDE
www.baster-aldejatetxea.com
DRAGON ORIENTAL
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental
DUKIENA
www.goiena.net/blogak/dukiena
GOIKO BENTA
www.goikobenta.com
MAULANDA MERENDERUE
www.goiena.net/blogak/maulanda
IXAUN
www.goiena.net/blogak/ixaun

OTZETA
www.goiena.net/blogak/otzeta
TABERNA BERRI
www.goiena.net/blogak/tabernaberri
ZUMELAGA
www.zumelaga.com

KALAMUA
KLOROFILA
www.klorofila.com

KIROL DENDAK
LAINO. SKATE & SNOW
www.laino.info

KONGRESU ETA BILKURAK
GANDIAGA TOPAGUNEA
www.gandiagatopagunea.com

LANDETXEAK
ARTEAGA
www.artegalandetxea.com
ATERBE
www.aterbe.com

LAMAÑO-ETXEBERRI
www.goiena.net/blogak/lamaino-etxeberrri
UXARTE
www.uxarte.net

LANTEGI ETA TAILERRAK
BATUAK S.A.
www.batuak.com
GAURKO, S.A.U.
www.gaurkosa.com
LINEAS LASA
www.lasa.es

MIRVAT
www.mirvat.com
PERFIPAR
www.goiena.net/blogak/perfipar
TALLERES CARPINS S.L.
www.carpinsa.com
SEIN BATU, S.L.
www.sein.es

LEIHOAK
ARGI-PLASTIK
www.goiena.net/blogak/argi-plastik
EGO
www.goiena.net/blogak/ego
ION LEHIOAK
www.puertasyventanas-ion.com

LORADENDAK
EKILORE
www.goiena.net/blogak/ekilore
LORELAN
www.goiena.net/blogak/lorelan
MAYTE
www.goiena.net/blogak/mayte

OINETAKOAK
KORO ZABALETA
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

OKINDEGIAK
AIASTUI
www.goiena.net/blogak/aiastui
BEROGI
www.goiena.net/blogak/berogi
OGIZUN
www.goiena.net/blogak/ogizun

OPARIAK
MERKEOPARI
www.goiena.net/blogak/merkeopari

OPTIKAK
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
www.goiena.net/blogak/multipticas
INSTITUTO OPTICO
www.goiena.net/blogak/optico

OSTALARITZA
GARAIA OSTALARITZA
HORNIKETAK
www.goiena.net/blogak/garaia

PROIEKTUAK ETA DEKORAZIOA
FORMAK
www.formak.net
IPAR PROJECT
www.iparproject.com

PUBLIZITATE AGENTZIAK
AKORT-PUBLICIDAD
www.akort-publicidad.com

SUKALDERAKO ALTZARIAK
BOLU
www.goiena.net/blogak/bolusukaldeak

TABERNAK
EZKUTU
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
ORLY
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
GUREA
www.goiena.net/blogak/gurea
HAMAİKA... TABERNA
www.goiena.net/blogak/hamaikataberna
ZIRIPOT
www.goiena.net/blogak/ziripot

TATUAJEAK
GANESHA
www.goiena.net/blogak/ganeshia

TAXIAK
GORKA GARAI
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

UDAL ZERBITZUAK
GAZTEEN INFORMAZIOA
BULEGOA
www.aizue.com
ARRASATEKO EUSKARA
BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA
www.goiena.net/blogak/aebpn

UMEENDAKO ARROPA
HAURT XOA
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

ZERAMIKAK ETA BAINUAK
URBIETA
www.goiena.net/blogak/urbieta
GELATZU
www.gelatzu.com

ZERBITZU DIGITALAK
ATAI
www.goiena.net/blogak/atai


ZUR LANTZAILAK
ELEJALDE
www.goiena.net/blogak/elejalde

Goienkaria **37.020** irakurle




GOIENKARIA: askogatik, irakurriena*

El Diario Vasco **23.700** irakurle




Gara **5.800** irakurle


Berria **5.300** irakurle



Marca **2.475** irakurle



Noticias De Gipuzkoa **1.800** irakurle




El País **990** irakurle



El Correo **220** irakurle



Deia **165** irakurle



Mundo Deportivo **120** irakurle



- GOIENKARIA da Debagoiengan gehien irakurtzen den hedabidea, askogatik.
- Debagoiendarren %67,4k astero irakurtzen du GOIENKARIA.
- 2005ean, 33.825 irakurle zituen GOIENKARIAk Debagoiengan; hortaz, 3.195 irabazi ditu.
- Gipuzkoan 50.000 lagunek irakurtzen dute GOIENKARIA.

Eskerrik asko, irakurle.

*CIES-EK EMANDAKO DATUAK (PORTZENTAJEETATIK ATERATAKOAK)

Goienkaria

ESKUBALOIA > EUSKADIKO GAZTE MAILAKO EMAKUMEZKOAK

Alde handia atera arren partidu eskasa jokatu zuten

Bilboko Tecons San Adrianek oso partidu txarra jokatu zuen, baina oñatiarrak lo gelditu ziren

Datorren zapatuan bigarren buelta hasiko dute, eta Usurbil izango dute aurkari, etxean

MIRARI ALTUBE > OÑATI

Denboraldiko bosgarren jardunaldia jokatu zuen Verkol Aloña Mendik Bilboko Tecons San Adrianen aurka, atzo goizean. 20 eta 11 irabazi zuten oñatiarrek, etxean. Hala ere, partidu benetan eskasa izan zen, bi taldeek hutsegite handiak egin zituztelako. Aloñako entrenatzaile Erik Fuentes ez zegoen batere pozik neskek egindako partiduarekin: "Bilbotarrek benetan partidu txarra jokatu dute, hortaz, guk askoz alde handiagoa atera behar genien. Geu ere lo geratu gara, eta baloi asko galdu ditugu", adierazi digu.

BIGARRIN BUELTA HASTEKO

Datorren astean bigarren buelta hasiko du Euskadiko gazte mailako emakumezkoen ligak. Lau puntu ditu orain Aloña Mendik,

eta hurrengo hiru partiduak oso garrantzitsuak dira: "Sailkapeneko lehenengo hiru onenak hartu behar ditugu. Lehenengo bueltan galdu egin genituen partidu horiek guztiak, baina alde txikiarekin. Horregatik motibatuta jokatuz gero seguru nago irabazteko gai garela", adierazi digu Fuentesek. Eta horretarako akatsak zuzendu behar dituzte oñatiarrek: "Baloi asko gabiltza galitzen azken partiduetan, eta hor badaukagu zeregina. Horregatik uste dut motibazioan dagoela gakoa", gaineratu du.

Bigarren buelta etxean jokatuta hasiko dute Aloña Mendiko neskek. Usurbil izango da aurkaria, hirugarren postuan dagoen taldea hain zuzen. Hortaz, sailkapeneko goiko postuetatik ez aldentzeko irabaztea komeni zaie oñatiarrei.



20 GOL Oñatiarrek 20 gol egin zizkieten bilbotarrei zapatuan.

JOSETXO ARANZABAL

GIMNASIA ERRITMIKOA > ESKOLA ARTEKO B MAILAKO TXAPELKETA

Bergarakoak lehenengo alebin mailan eta Arrasatekoak hirugarren infantil mailan

San Martin ikastetxeko taldeak eskuratu zuen lehen postua alebin mailan eta hirugarrena, infantil mailan, Arizmendi ikastolakoak

M.A. > ARRASATE

Zapatuan jokatu zuten Gipuzkoako eskola arteko B mailako gimnasia erritmikoko txapelketa. Alebin, infantil eta kadete mailetan 14 taldek jardun zuen norgehiagokan, eta bakarka 49 lagunek. Benjaminetan, oster, 23 taldek eta 26k bakarka. Tartean, Bergarako Ariznoa taldeko kideak eta Arrasateko Dragoikoak zeuden.

SAN MARTINGOAK LEHENENGO

Gustura zeuden Ariznoako kideak emaitzekin. Alebin mailan lehenengo geratu zen San Mar-



TALDEA Neska taldea pilotak eskuan dituztela.


JOSETXO ARANZABAL

tin ikastetxeko taldea eta bosgarren Mariaren Lagundikoa. Eta bakarka Irene Odriozola lehenengo izan zen eta Michelle Rajado hirugarrena. Kadete mai-

lako taldea bigarren geratu zen.

Dragoi taldekoak ere pozik zeuden. Arizmendiko taldea laugarren geratu zen alebin mailan eta hirugarren infantil mailan.

ATLETISMOA > ESKOLA ARTEKO TXAPELKETA



JOSETXO ARANZABAL

Zortzi atletek lortu dituzte gutxiengoak

Egubakoitzean jokatutako eskola arteko atletismo txapelketan Arrasate eta Aretxabaletako 18 atletek hartu zuten parte. 60, 80 eta 150 metro egin zuten korrikan, eta Gipuzkoako txapelketa jokatzeke eskatzen duten gutxiengo denbora zortzik lortu zuten. Egubakoitzean beste txapelketa bat jokatuko dute, 18:00etan, Arrasaten.

Egubakoitzean bukatu zen Aloña Mendik antolatutako mendi astea. Azken ikus-entzunezkoa Iñaki Otxoa De Oltza iruindarrak eskaini zuen. 2007an Dhaulagirira egindako espedizio iru-diekin *Cicatrices del paraíso* ikus-entzunezkoa egin du. Oñatiko kultura etxera egindako bisita aprobetxatu genuen 2008rako dituen asmoei buruz berba egiteko.

Iñaki Otxoa de Oltza > Alpinista

"K2 mendian soka apurtu zitzaidan eta nire bizitza arriskuan ikusi nuen"

A. EZKIBEL/M. BIKUÑA > OÑATI

Iñaki Otxoa de Oltza alpinista iruindarrak *Cicatrices del paraíso* ikus-entzunezkoa eskaini zuen Oñatiko mendi astearen barruan. Harekin berba egin genuen kultura etxean.

Hasteko konta egiguzu zer ikus daitekeen *Cicatrices del paraíso* ikus-entzunezkoan?

Orokorrean, 2007an Dhaulagirira (8.167 m) egindako espedizio irudiak ikus daitezke. Espedizio hura oso gogorra izan zen. Dhaulagiriko jeitsiera oso gogorra izan zen, gure taldekide bat izoztu egin zen-eta. Ondoren, Annapurna igotzen ahaleginu ginen. Eta han ere ezbeharrak izan genuen: Dhaulagirin zegoen espedizio bateko bi lagun elur-jauzi baten hil egin ziren. Hortaz, hango bizipen guztiak bildu ditut Oñatin eskaini dudana ikus-entzunezkoan.

Ze mezu eman gura duzu ikus-entzunezko honekin?

Paradisua toki ederrak dira, duda barik. Baina, batzutan sufri-mendua sortzen dute eta baita heriotza ere. Hala, mendia paradisuak da niretako, baina, era berean, arriskuak ditu.

Edozelan ere, ni, berez positiboa naiz, eta mezu positiboa zabaldu nahi dut.

Nola hasi zinen alpinismo munduan?

Txikitatik hasi nintzen honetan. Nire aita judo irakaslea zen, eta aste bukaeratan eskolarik ematen ez zuenez mendira eroaten gintuen anai-arreba guztiok. Gainera, sei urterekin 1.000 metroko mendiak igo nituen. Gero 15-16 urterekin alde batera utzi nuen mendia. Eta halako batean haitzean egiten den eskalada ezagutu nuen eta berriro mendira bueltatu nintzen.

Eta ordutik 8.000 metroko 12 mendi igo dituzu. Marka ona da.

Bai, hala da. Egia esateko 12 mendi igo ditut, baina batzuk behin baino gehiagotan. Hortaz, igoera guztiak zenbatuta 16 igoera egin ditudala esango nuke.

Nola gogoratzen duzu 8.000 metroko lehenengo igoera?

Nire lehenengo igoera Nepalen dagoen Kangchenjunga (8.586 m) izan zen, munduko hirugarren mendirik garaienera. Ez ginen tontorreraino iritsi, baina bidaia zoragarria izan zen. Aldapa haietan ikusi nuen mendiak



Argazkian, Iñaki Otxoa De Oltza Oñatiko kultura etxean, egubakoitzean.

JOSETXO ARANZABAL

duen xarma eta han nola ibili behar den. Edozelan ere, Kangchenjungako tontorrera igotzen saiatuko naiz berriro ere.

Igo dituzun mendietatik zuretzako zein izan da zailena?

Niretako gogorrena Himalayan dagoen K2 (8.611 m) izan da. Emozionalki oso gogorra egin zitzaidan, fisikoki ondo bukatu nuen arren. Era berean, fisikoki leher eginda bukatu nuen 2007an, Dhaulagiriko espedizioan.

Hain zuzen, Dhaulagiriko espedizioan bi lagun hil zitzaizkizun. Nola egiten zaio aurre halako egoera bati?

Gu Annapurnan geunden eta haiek Dhaulagirin, 20 bat kilometrorra, gutxi gora behera. Hortaz, ia zuzenean bizi izan genuen elur-jauzia eta haien heriotza. Eta oso gogorra izan zen, baina aurre egiten zaio egoerari.

Niretako ez da kontsolamendua jakitea mendian hil zirela bi lagunak.

Mendian hainbeste ibilita, inoiz, zure bizitza arriskuan ikusi duzu?

Urte guzti hauetan istripu bakarra eduki dut, hain zuzen, K2 mendian. Soka bat apurtu zitzaidan eta erorketan, bai ikusi nuen bizia galduko nuela; baina, zortzarekin bizirik irten nintzen.

Eta halako une larrietan ikusten dituzu mendiak dituen arriskuak. Edozelan ere, ez dago mendira joan beharrik arriskuak

topatzeko, eguneroko bizitzan asko egoten dira eta mendiak dituenak bezain arriskutsuak dira.

Mendiari errespetua zor zaio?

Bai, mendiari, gutxienez errespetua izan behar zaio.

Navarra ocho mil proiektu egiten zabilta. Nola sortu zen ideia?

Helburua 8.000 metroko 14 mendiak igotzea da eta horretan gabiltza. Momentuz bi igoera geratzen zaizkit: Kangchenjunga (8.586 m) eta Annapurna (8.091 m). Asmoa, apirila eta maizta artean bi mendiak igotzea da. Nire buruan aspaldiko ideia da eta babesleak topatu ondoren martxan jarri genuen. Bestalde, proiektu honekin bukatzen dudanean, ez dakit zer egingo dudana.

AITAREKIN

"Txikia nintzenean, aste bukaeratan mendira joaten ginen anai-arreba guztiak aitarekin"

MENDIA

"Sei urterekin igo nuen lehenengo aldiz 1.000 metroko mendia: orduan ezagutu nuen mendia barru-barrutik"

BI IGOERA

"8.000 metroko bi igoera geratzen zaizkit: Kangchenjunga eta Annapurna. Ea aurten egiten ditudan"

BERGARA

Giro ona eta kiroltasuna nagusi zapatuan jokaturako partiduetan

BENJAMINAK Elgeta, Antzuola eta Bergarako neska-mutilak eskubaloian aritu ziren Labegaraletan

AZKENA Zapatukoa eskubaloiko azken jardunaldia izan zen; pilota topaketa egingo dute zapatuan, Udal Pilotalekuan

ALEBINAK Alebin mailako gaztetxoek saskibaloiko sei partidu jokatu zituzten Mariaren Lagundiko kantxan

EDU MENDIBIL > BERGARA

Elgeta, Antzuola eta Bergarako neska-mutilek, benjamin mailakoek, eskubaloi jardunaldia izan zuten zapatu goizean Labegaraletako kiroldegian. Hain zuzen ere, eskubaloiko azken jardunaldia izan zen zapatukoa eta aurrekoetan bezala lehia estua izan zen partidu guztietan. Edozelan ere, giro ona eta kiroltasuna izan ziren nagusi jokaturako bost partiduetan. 40 minutuko partiduak jokatu zituzten, lau zatitan banatuta. Lehen bietan nagusitzen zen taldeak puntu bat eskuratzen zuen eta gauza bera azken bi zatietan. Gauzak horrela, emaitzak hauek izan ziren: San Martin C, 1; Antzuola B, 1. San Martin B, 0; Antzuola A, 2; San Martin A, 0; Aranzadi, 2. Elgeta, 0; Mariaren Lagundia, 2.

Zapatuan, otsailaren 16an, pilotako topaketa izango dute benjamin mailakoek, Udal Pilotalekuan. Ehun bat gaztetxo elkartuko dira han, poliki-poliki pilotaren sekretuak ikasteko asmoz.

ALEBINAK, SASKIBALOIAN

Bestalde, alebin mailako saskibaloian partiduak jokatu ziren zapatuan Mariaren Lagundian. Goizeko 10:00etan hasita, sei partidu jokatu ziren eta emaitza hauek izan genituen: Mariaren Lagundia, 20; Antzuola B, 5. Antzuola A, 13; Aranzadi D, 8 (nesken partiduak biak). San Martin A, 29; Mariaren Lagundia A, 15. Aranzadi C, 20; Aranzadi A, 4. Antzuola A, 12; San Martin B, 10 eta, azkenik, Mariaren Lagundia B, 33; Aranzadi B, 20.



Antzuola A. Zutik, ezkerretik eskumara, Manex, Mikel, Jon eta Jon. Makurtuta, Josune, Amaia, Facun eta Kepa.




Antzuola B. Antzuolarrak, entrenatzailearekin. Zutik, Xabi, Aiert, Unai, Beñat eta Jon. Behean, Ainhize, June, Ane, Xabi eta Toheed.




San Martin C. Goian, Unai, Markel, Manex, Mikel eta Joseba. Behean, Elene, Miren, Maite eta Marina.



Mariaren Lagundia A. Zutik, Yuriko, Mikel eta Asier. Makurtuta, Xabier, Josu Martin, Antxon eta Jokin.



Markel eta Manex
San Martin ikastetxea



Jone eta Ainar
Elgeta



Unai eta Mikel
Aranzadi Ikastola

Markelek 10 urte eta Manexek 9 urte ditu. Zapatuan kiroldegian jokaturako partiduen ostean izan ginen beraiekin. Eskubaloian berdindu egin zuten, baina pozik ziren egindako partiduekin. Gainera, harro-harro esan ziguten zapatukoa izan ezik, eskubaloian eta saskibaloian jokaturako partidu guztiak irabazi dituztela orain arte. Ez dago gaizki...

Mariaren Lagundiako taldearen aurkako eskubaloi partidua jokatu zuten elgetarrek. Joneri eta Ainarari ez zitzairen batere kosta ohetik altxatzea eta lagunartean kirolean aritzera Bergararaino etortzea. Gurasoekin Bergaran buelta bat emateko aprobetxatu zuten partiduen ostean. Eta Elgetan elurra egiteko irrikaz daudela ere esan ziguten.

Unai eta Mikelek Aranzadiko taldean jokatzen dute, eta zapatuan San Martin A taldearen aurka neurtu zituzten indarrak, Labegaraletan. Zapatuetako kirol jardunaldietan ondo pasatzen dutela diote: kirol ezberdinetan aritzen dira biak, baina Unairi bereziki futbola gustatzen zaio eta Mikelek, aldiz, guztien artean saskibaloia du gustukoan.



**Hedabide
guztietarako
telefono berria
eta bakarra**

943 25 05 05



Goienkaria ASTELEHENKO **Goienkaria**



Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> FANGORIA

Alaskak eta Nacho Canutek 'El extraño viaje' aurkeztu zuten Jamen > 23



> ANJE DUHALDE

Anje Duhaldek 'Sorminetan' diskoa ekarri zuen Elgetara > 25



> KANTARI

Arrasate eta Bergarako gaztetxoak 'Kantari' saioan > 26



> ELKARRIZKETA

Kepa Errasti 'Goenkale'-ko aktorearekin berbetan > 29



METAL GAUA LATZENEKIN

Zoramena, 'Infernuko ateetan'

1.100 ZALE KONTZERTUAN

Oñatiko 600 zale inguruk disfrutatu zuen Latzenen kontzertuaz. Guztira, 1.100 bat lagun izan ziren bertan

SEI KAMERAK GRABATUTAKO IRUDIAK

Infernuko ateetan tour birako DVDa apirilean kaleratuko dute. Eskoriatzako kontzertuan sei kamera izan ziren lanean

MAIDER ARREGI > ESKORIATZA

Eskoriatzako kiroldegia gainezka zegoen, jakina zen beteko zela. Oñatin, esaterako, sarrerak salgai jarri eta bi egunetara guztiak saldu ziren. Latzenek ikuskizun paregabea eskaini zuen eta zaleak erotu egin ziren. Jendea urdu-ri, 50 minutu inguru taldea noiz hasiko zain. *Terminatorren* "introarekin" egin zioten sarrera kontzertuari. *Kontzientzia ala Infernua* diskoko *Bat gehiago* abestiarekin hasi zen emanaldia. Heavy metalaren ikurra eskuekin irudikatuz, zaleak 'Latzen' behin eta berriro oihukatu zuten burua etengabe astinduz. Ia bi orduko ikuskizun bikaina eskaini zuen taldeak. 10 urteren ostean sasoian eta inoiz baino indartsuago dagoela erakutsi zuen Latzenek. Jendea berotzen hasi zen eta orduan iritsi ziren Iker Martínez de Zuazo, *Marti*, gitarra jotzailearen

lehen *punteo* sakon eta azkarrak. *Infernuko ateetan tour* birarako erosi berri duen gitarrarekin soinu bikain eta bortitzak eskaini zituzkien jarraitzaileei. Ondoren etorri ziren *Hiesa ihes* edota *Ze ingo xu* abesti ezagunak; azken hau, oñatiarren leloa bilakatu dela esan daiteke. Bertan zeudenek gogotsu eta indartsu abestu zuten. Sorpresa ugari izan zen. Publiko-arekin konplizitate handia egon zen eta Aitor Uriarte abeslariak ahots jokoak egin zituen ikusleekin tartekatuta *Hiesa ihes* abestian. Hala, talde handien bertsio ezagunak ere abestu zituzten: Sex Pistols, Led Zeppelin edota Kortaturen *Zu atrapatu arte*. Emanaldia bukatutzat emanda, zaleek 'beste bat' oihukatzen zuten eta asko itxaronarazi gabe taldearen berehalako erantzuna izan zuten. Eta nola ez Latzenen balada erreferentea etorri zen: *Laztana. Bis-*

ean sorpresa ugari, *Heriotzari deika* maketako azken abestia eta birari izena ematen diona eskaini zuten, *Infernuko ateetan*. Kontzertuari amaiera emateko Latzenen lehen *singlea* eta ospetsu egin zen lehen abestia: *Gu ez gara*. Hala, amaiera ikusgarri batekin eta Aitor Uriarteren oihu indartsu, luze eta amaigabe batekin amaitu zen kontzertua. Zaleak pozik eta Latzeneko taldekideak ere oso gustura. Espero zuten harrera izan zuten eta pozik azaldu ziren egindako lanarekin, izan ere dena eman zuten zuzenekoan eta hori transmititu zuten.

DVDA APIRILEAN KALERATUKO DA

Jendeak oroigarri ona izan dezan kalitatezko DVDa kaleratu nahi dute. Hala, sei kameraz grabatu zuten atzoko kontzertua. DVDa

(24. orrialdean jarraitzen du)

Zoramena, 'Infernuko ateetan'

(23. orrialdetik dator)

kaleratu nahi dute. Hala, sei kameraz grabatu zuten atzoko kontzertua. DVDa apirilean jarriko dute salgai. Bi zati izango ditu DVDak. Alde batetik, erreportaje bat jasoko du eta bestetik kontzertuak. Apirilearen 5ean, Getxon, berriro itzuliko dira zuzeneko CD-DVDa promozionatzera eta udaberri eta uda partean zuzeneko kontzertu gehiago eskainiko dituzte.

ABY-KEM ETA GOVERNORS

Bergarako *pantera beltzek* eman zioten hasiera metal gauari. Thrash eta Death metal doinu gogor eta sakonak giroa sutu zuten. Aby-Kem zuzeneko talde indartsua da eta jarraitzaileak gozatu egin zuten kaleratu berri duten *Azken guda* disko berriko doinuekin. *Larrosen iraultza*, *Eguzkia* edota *Azken guda* abestiak metal gogorra gehien maite dutenen buruak astindu zituen. Gainera, azken kontzertua izan zen taldeko batera jotzailearentzat. Aurrerantzean Lord Witch taldeko Iker Narvaez izango dute lagun Aby-Kem bergararrek.

Governors arrasatearrek *Itxaron beharra ez da itxaropena* disko berriko doinuak aurkeztu zituzten. *Galdutako laztana* abestiarekin eman zioten hasiera. Rock gogorra eta metal melodikoa bikain uztartu zuen Juan Sangreren taldeak. Zaindutako eta neurtutako ikuskizuna eskaini zuten sua protagonista bilakatu zen eszenaratze batekin.

AUTOBUSAK GAINEZKA

Oñatiko Udalak antolatutako autobusak etengabe aritu ziren lanean. Arratsaldeko lehen autobusa gainezka joan zen Eskoriazara. Baita gainontzekoak ere. Arazoa kontzertua amaitzean sortu zen. Izan ere, ehunka pertsonak autobusa ordu berean hartu nahi zuten eta horrek haserreak eragin zituen. Dena den, autobus bat baino gehiago zeuden une hartako arazoak arintzeko eta zerbitzua hobetzeko.



ABY-KEM Mikel Alvarez abeslariak guztia eman zien zaleei.

MAIDER ARREGI



ABY-KEM Taldeak disfrutatu egin zuen zuzenekoan.

MAIDER ARREGI



GOVERNORS Sua protagonista izan zen eszenatokian.

M.A.



GOVERNORS Juan Sangrek ikuskizuna eskaini zuen.

MAIDER ARREGI



LATZEN Laukotea gustura aritu zen taula gainean zaleen begiradapean.


JOSETXO ARANZABAL



Ainara eta Aitziber Arregi
Legazpi



Uxue, Irune eta Irati
Oñati



Joserra Gorostiza
Legazpi



Oñatiko mutil koadrila
Oñati

"Orain dela 10 urteko oroitzapen politik gogoratu ditugu. Legazpin erosi genuen taldearen maketa eta Latzenen jarraitzaile sutsuak gara ordutik. Taldeak Tolosan eman zuen kontzertura ere joan ginen eta oso gustura eta pozik gelditu ginen".

"Kontzertu bikaina eman dute. Latzen 15 urte genituenetik jarraitu dugu eta ez genuen gaurko kontzertua galdu nahi. Abesti guztiak buruz dakizkigu eta etengabe abestu dugu. Pena da Oñatin ez izatea. Uste dugu jende gehiago izango zela".

"Ikaragarria izan da kontzertua. Aspaldian ikusi dudan hoberena, duda barik. Tolosako gaztetxean izan nintzen azken aldiz Latzen ikusten eta han ere bikain aritu ziren. Jarritako segurtasun neurriak harritu nau; horrenbeste jende egonda normala da".

"Oñatiar asko batu gara. Guk gainera betereoetako futbol txapelketako partidua irabazi dugula ospatzera etorri gara. Gazteak gara eta Latzenen hasiera eta sorrera bizi izan ez dugun arren pozgarria da taldea zuzenean ikusteko aukera".

FANGORIA > ALASKA TA NACHO CANUTEK DISKOA AURKEZTU ZUTEN

Artifiziala izan liteke, baina guztiek hegaz bukatu zuten Alaskarekin

Alaska eta lagun zituen dantzariak morbo eta probokazioaren erreginak direla garbi utzi zuten emanaldian

Kontzertu hasieran, bere untxia ikustean haserretu egin zen

JON BEREZIBAR/AITOR IZAGIRRE

Txistu artean hartu zituzten Jamen Alaska eta koadrila (Canut, Doctor Horror, Miss Topacio, Spunky, Andy eta familia bazkari batera sekula ere gonbidatuko ez zenituzkeen beste hamaika lagun); ordu erdi berandu hasi ziren-eta. Kantatzen hasi orduko, lehen liskarra izan zen, giroa bero hasteko. Eta arrazoirik ez zitzaion falta Alaskari. Izan ere, ilegorriak bere takoitza-rekin Bergarako oholza zapaldu bezain laster ikusle artean bere untxia (maskota) ikusi zuen. Ingurura begiratu eta kamera eta flashak besterik ez ziren nagusi. Olvido, baina, ez da isilik geratu ohi den horietakoa eta abesteari utzi eta bere untxia atera zuenari esan zion, animaliatxoa kamerinora igotzeko. Bero hasi zenez beraz Fangoriaren ikuskizuna eta lehen atsedenera arte, garrak goritu besterik ez ziren egin. Hori bai, kontzertuari aitzakia bat ipini beharrean gaude: soinu eskasa, *pegada* gutxiakoa. Aurrez jakinez gero, 3-Cko nerabeari eskatuko geniokeen haren soinu ekipoa, gure logelatik Jamen baino indartsuago entzu-



FANGORIA Argazkian Alaska eta berriki bularretako ebakuntza egin duen Topacio *go-go*.

JOSETXO ARANZABAL

ten dira-eta Pont Aeriko haren CD-ak. Canut-Gara bikoteak bakailaoari bota ohi dion gatz eta berakatz kimikoa kontuan hartuta, zapatukoarengatik, gutxi kexatuko ziren osteko bihotzerreaz. Gainera, berehala egin zituen ikusleak lagun: esanez, oso gogoa zeukatela zeinen ondo pasatu zuten duela lau bat urte Jamen egindako *Halloween* festan.

Soinu makala baina, horri aurre egiteko, abesti eta lelo itsaskor sorta bikaina daukate Fangoriakoek. Hasi, *El extraño via-*

je, azken laneko *hit* batzuekin ekin zioten. Lanik berriena izanda ere, lehen abestitik hasi ziren koruak egiten ikusleak. Tartean entzun genituen *Plegarias atendidas* edota *Estés donde estás*, desteinuz beteak. Kolore beltza eta *bakailao* erritmo ezin tematiagoak izan ziren nagusi lehen zatian.

DANTZALDIKO ERREGINA

Alaska, bere aldetik, eta bere soineko hertsia uzten zion neurrian, gelditu ere ez zen egin kontzertu osoan. Eta harekin bat, tau-

la kide, Andy eta Topacio, dantzari eta probokatzaileak. Hala ere, bi *go-go* ipurterre hauek aurrekoetan baino dantza gutxiago egin zutelaren iruditzen zitzaigun. Geroago kontatu zuen Alaskak berak, Topaciok berriki izan duela bularretako ebakuntza eta horregatik ezin zuela ohiko titidantza egin. Normalean baino neurrikoago baina betiko gertutasunarekin, arduratu ziren bi dantzariak giroari eusteaz. Dantza, ile-astindu eta bakailao artean, lehen zatiko azken abestia jo

eta eszenatokia laga zuten. Bigarren zatian indar gehiagorekin eta ikusleak sakelean hasi zuten.

Quiero ser santa klasikoarekin hasi zuten bigarren atala, txalo eta jarraitzaile sutsuen oihu beroekin. Jarraian, harrera apartekoa izan zuen *Interior de una nave spacial abandonada* abestia. Jaia gelditzerik ez zegoen ordurako, nahiz eta kameradun gogaikarriek une hori ere betirako mugikorrean gorde gura izan, inguruko izorraldirako. Bigarren zati honetan, zaleei huts egiteko, *hit* guztiak jo zituzten. Nabarmentzekoak, *No sé qué me das* haluzinogenoa (pastilla eta bere titien erreferentzia eta gutti) edota *Criticar por criticar* gupidagabea, guztiek abestu zutena, aretoa zoraraziz. Bigarren zati honeratako, zuriz jantzi zuten agertokia, euren esanetan, gehien gorroto duten kolorea, eta azaldu zuten, jantzen zuten azken eguna izan zen zapatua. Azkenean, hasieratik bukaerara arte atsedetik eman gabe, amaitu egin zuten. Bisen txanda orduan.

Oparitxo batekin etorri ziren Fangoriakoak bisetan Baccaren *Sorry I'm a Lady*ren moldaketarekin. Azken abestia *El cementerio de mis sueños* eta *La mano en el fuego* bikainak izan ziren, koreografia eta guzti, non Alaskak pausu bat bera ere ez zuen asmatu. Hala ere, kexu gutxi entzun ziren amaierarako. Beste bat arte agurtu ziren eta Punta Canara oporretan zihoazela aitortu zuten eta han erreko zituztela arropa zuri guztiak. Hitzun zegoen Alaska eta amaitu bezain laster oholtzaren alde batera jaitzi zen jarraitzaileekin egon, diskoak sinatu eta takoiekin kamera bat edo beste txikitzeko.

Anje Duhalderen abestiak zuzenean iritsi ziren entzuleengana

MAIDER ARREGI > ELGETA

Kantari lapurtarrak country, blues eta rock doinuak uztartu zituen. *Sorminetan* disko berriko abestiak betiko abesti itsasorrek tartekatzen zituen Anje Duhaldek. Etenik gabeko emanaldia egin zuen, eta Espaloia Kafe Antzokia jarraitzailez bete zen.

Arrangoitzeko kantariaren doinuak eta letrak entzuleengana zuzenean iritsi ziren, emozioz beteta. Askok gainera, abesti ezagunenak gogotsu abestu zituzten. Emanaldi amaieran jendea pozik eta gustura azaldu zen Anje Duhaldek eskainitako kontzertu borobilarekin.



JOSETXO ARANZABAL



Saioen emanaldiak GOITBn



NOIZ > Otsailaren 12an
ORDUA > 20:15ean
TALDEA > Leire Lasanta,
Lorea Berezibar, Mikel
Agirre eta Uxue Ezpeleta
HERRIA > Arrasate
URTEAK > 8 urte
ABESTIA > *Maite zaitut*




NOIZ > Otsailaren 12an
ORDUA > 20:15ean
TALDEA > Amaia Lasa, Ane
Novoa eta Maite Oliden
HERRIA > Arrasate
URTEAK > 8 urte
ABESTIA > *Narama*



NOIZ > Otsailaren 12an
ORDUA > 20:15ean
TALDEA > Ainhoa
Mendizabal, Aitana Gomez,
Ane Mendieta eta Ane
Otxandiano
HERRIA > Arrasate
URTEAK > 9 urte
ABESTIA > *Marea gora*



NOIZ > Otsailaren 12an
ORDUA > 20:15ean
TALDEA > Ane Zuazubiskar,
Izar Carmona eta Izaro
Uribarren
HERRIA > Arrasate
URTEAK > 10 urte
ABESTIA > *Iñaki*



NOIZ > Otsailaren 14an
ORDUA > 20:15ean
TALDEA > Aitziber
Iturriaga, Alex Astiazaran,
Amaia Motoso eta Mikel
Najera
HERRIA > Bergara
URTEAK > 8 urte
ABESTIA > *Furra furra*



NOIZ > Otsailaren 14an
ORDUA > 20:15ean
TALDEA > Alba Bolinaga,
Garazi Marzo, Irene Jauregi
eta Miren Gutierrez
HERRIA > Bergara
URTEAK > 8 urte
ABESTIA > *Maite zaitut*



NOIZ > Otsailaren 14an
ORDUA > 20:15ean
TALDEA > June Nogueiras
eta Maider Gago
HERRIA > Bergara
URTEAK > 9 urte
ABESTIA > *Ametz bat*



NOIZ > Otsailaren 14an
ORDUA > 20:15ean
TALDEA > Maika Gallastegi,
Maite De Pedro, Martin
Oteiza eta Tatiana
Manecha
HERRIA > Bergara
URTEAK > 11 urte
ABESTIA > *Galdurikan
nago*



NOIZ > Otsailaren 14an
ORDUA > 20:15ean
TALDEA > Aitziber Yera,
Amaia Uriarte eta Izar
Morillas
HERRIA > Bergara
URTEAK > 11 urte
ABESTIA > *Festarik festa*



NOIZ > Otsailaren 14an
ORDUA > 20:15ean
TALDEA > Ainhoa Murgizu,
Garazi Zubizarreta eta
Miren Gonzalez
HERRIA > Bergara
URTEAK > 10 urte
ABESTIA > *Arratsalde
honetan*



ROCK PRIVADO

"Oñatiko gaztelekuan zuzeneko eskainiko dugu egubakoitzean"

Donostiako Rock Privado taldeko kidea da Oñatiko bateria jotzaile Andoni Regueiro: Lagash taldeko kide ohia

Pop-rock musika lantzen duen taldeak izen bereko diskoa kaleratu eta salgai jarri zuen urtarrileko lehenengo astean

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Andoni Regueiro oñatiarrak disko berria kaleratu du Donostiako Rock Privado taldearekin. *En todo este tiempo* lana kaleratu berri dute eta Lagash taldeko bateria jotzaile izandakoarekin hitz egin dugu.

Zer da Rock Privado?

Pop-rock musika egiten duen talde bat gara. Ilusio handiarekin egin dugu lehen diskoa; baina, gure ezaugarri nagusia zuzeneko emanaldiak dira, oso indartsuak dira-eta.

Zelako lana zuen lehenbiziko diskoa, *En todo este tiempo*?

Taldeko kideek bizi izan ditugun istorioetan oinarritutako hamalau kanta idatzi ditugu; eta gustura gaude emaitzarekin. Ziur

asko diskoa hobea izan zitekeen, baina mami asko duen lana dela uste dugu. Era berean, gu geuk hasieratik ekoiztutako lana izan da, eta Donostiako Amadeus diskoetxearekin grabatu dugu.

Urtarrileko lehen astean kaleratu zenuten diskoa. Non eros daiteke?

Taldeak duen web orrian, www.rockprivado.com-en, salgai dugu 10 eurotan. Era berean, Oñatiko hainbat tabernetan ere jarri dugu: Arkupe, Izarraitz eta Harripe tabernetan.

Taldearen ezaugarrietako bat zuzeneko emanaldiak direla esan diguzu. Hasi zarete kontzertuak eskaintzen?

Oraindik ez ditugu zuzeneko

asko lotu, hainbat areto ikusten gabiltza-eta. Edozelan ere, Oñatiko kontzerturako eguna badugu: egubakoitzean, hilaren 15ean, egongo gara gaztelekuan, 23:00etatik aurrera.

Zu oñatiarra zara, baina taldea donostiarra da. Nortzuk osatzen duzue taldea?

Taldea donostiarra dela diogu taldeko hiru kide hangoak dira-eta: German Uribe ahots nagusia da eta aho-soinua eta gitarra jotzen ditu; Juan Manso gitarra; eta Iñaki Santos teklatura. Haiekin batera gaude taldean, Dafnis Linares, Irunen bizi den mexikarra eta baxua jotzen duena; Rocio Larrañaga azkoitiarra eta ahotsa egiten duena, eta ni neu, bateria jotzailea.

Eta nola iritsi zinen Rock Privado taldera?

Oñatiko Lagash taldea utzi ondoren, musikan jarraitzeko erabakia hartu nuen. Egunkari batean iragarki bat jarri nuen, eta German Uriberen deia jaso nuen. Haren proiektua ezagutu nuen eta gustatu egin zitzaidan. Gainera, une egokian iritsi nintzen, diskoa grabatzen hasteko ak ziren-eta; hala, denbora gutxi



Erreferente asko dituen taldea

Donostiako Rock Privado taldeak hamalau kanta bildu ditu lehen diskoan. Oro har, pop-rock musika lantzen dute. Baina, *En todo este tiempo* izeneko diskoan baladak ere entzun ahal dira. Era berean, punta-puntako beste talde batzuen ukituak ere antzematen dira; besteak beste, Bruce Springsteen, U2, Van Morrison eta Pink Floyd.

Egunerokotasunean oinarritutako istorioak kontatzen ditu Donostiako taldeak. Disko berriarekin entzuleen bihotzera iritsi nahi dute Rock Privado taldeko sei kideek.

Mireia Bikuña

izan nuen kanta guztiak entzuteko eta ikasteko. Baina, nigan jarritako konfiantza asko esker-tzen diet.

Lagash eta Rock Privado taldeen musikak entzun ondoren, talde oso ezberdinak direla ikusten da.

Lagash taldearekin heavy musika egiten genuen, eta oso ona gainera. Niri heavy musika asko gustatzen zait; baina, beste musika estilo batzuk ere bai; besteak beste, rock, pop, blues eta jazz. Gainera, nik musika jotzen jarraitu nahi nuen, eta German Uribek eman zidan horretarako aukera.

Lagash taldean egindako urteez ze oroitzen dituzu?

Oroitzen oso onak. Metal doinuak lantzeko aukera eman zidaten eta ez dut ahaztuko. Taldeak Zaragozan emandako azken kontzertu dut gogoan: itzela, oso berezia izan zen emanaldi hura guztiontzat. Lagash taldean egindako urteak bi epetan banatzen dira. Taldea sortu eta urte batzuetara utzi egin nuen. Bost urte beranduago berriro ere taldera itzuli nintzen. Urte oso onak izan ziren, zalantzarik ez.

gazte zerbitzuak

BEKAK

> **Ikerketa.** Ibercajaren Kultura eta Gizarte Ekintza. Ikerketaren Bikaintasuneko Beka Nazionalak 2008. Epea: otsailaren 15a.

> **Gidoiak.** Montehermoso Kulturunea. Montehermoso 2008 arte eta ikerketa laguntzen deialdia: gidoi zinematografikoa. Gidoi zinematografiko bat egiteko proiektu bat aukeratu da. Epea: martxoaren 28a.

IKASTAROA

> **Eski.** Gipuzkoako Goi Mendiko Eskola. Mendi eskiko ikastaroa Portalet-Telera eta Aragües-Napazal, datak 2008ko otsailaren 16/17 eta 23/24.

> **Begirale.** Hezkide Eskola. Jangelako begirale izateko 36 orduko ikastaroa. Epea: otsailaren 29a.

LEHIAKETAK

> **Literatura.** Lasarte-Oriako Udala. Lasarte-Oriako Literaturako XXII. Lehiaketa 2008.. Epea: apirilaren 4a.

> **Film laburrak.** Langreoko Udala. Art Nalón Film Laburrak. 2008ko urtarriaren 1ean 36 urte bete dituzten gazte sortzaileak (zuzendariak edo ekoizleak). Epea: maiatzaren 23a.

LANA

> **Musika irakasleak.** Lasarte-Oriako Udala. Udalen Musika Eskolako bi irakasle-lanpostu betetzeko azterketa bidezko oposizio-lehiaketa. Epea: otsailaren 18a.

> **Begiraleak.** Mondragon Lingua. Begiraleak behar dira Euskadiko zenbait lekutan Mondragon Lingua 7-14 urteko haurrentzat uztailean antolatzen dituen ingelesekoudalekuetarako. Epea: otsailaren 27a.

> **Operari.** Itsasondoko Udala. Itsasondoko Udalean lan desberdinetako operario lanpostu bat betetzeko. Epea: Otsailak 19.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

ONATIKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Sagasti kalean 85 m²-ko etxe berria salgai. Hiru logela, bi komun, sukaldia, egongela eta balkoia. Eguzkitsua, garaje eta trastelekuarekin. Erdi jantzia. 629 40 42 16 edo 656 75 86 97.

Arrasate. 47 metro koadroko apartamentua, erdialdean kokatua. Berritua eta jantzia. Argitsua eta material ederrekin egina. 645 73 04 69.

Arrasate. Duplexa salgai Otalora kalean. 70 metro koadro, bi logela, bi komun, sukaldia, egongela eta 20 metro koadroko terraza. Nahiko berria (13 urte). 696 79 43 89.

Bergara. 90 metro koadroko duplexa salgai Ibargarai kalean. Erdi jantzia. Estreintzeko dago. 16 metro koadroko garajearekin. 619 71 70 53 edo 943 76 54 72.

Bergara. Alde zaharrean etxea salgai. Bi logela, guztiz eraberritua. 649 56 34 92.

Bergara. Bost urte dituen etxebizitza salgai Ibargarai kalean. 92 metro koadro ditu, 21 metro koadroko terrazarekin. Garajea aukeran. 679 29 39 56.

Bergara. Etxebizitza salgai erdialdean. 90 metro koadro. Igogailua eta garajea. Nahiko berria. 630 60 47 75.

Eskoriatza. Etxebizitza salgai Dorleta auzoan. 82 metro koadro. Lau logela, sukaldia, jangela, bainugela eta lehortegea ditu. Berogailua. Oso eguzkitsua. 210.000 euro. Aukera paregabea. 645 97 45 64.

Eskoriatza. Etxebizitza salgai, 73 metro koadroko. Sukaldia, egongela, bainua, hirurologela eta balkoia. Guztiz berritua eta eguzkitsua. 615 70 99 18.

Oñati. 75 metro koadroko etxea. Hiru logela, egongela-jangela, bainugela eta eraberritako sukaldia. Bi ganbara. Oso argitsua. Jantzia. 629 93 87 01.

Oñati. Diseinuko duplexa salgai. 120 m². Kale Zaharrean. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldia, egongela eta estudioa. 676 39 36 93.

Oñati. Duplexa salgai erdialde-

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com
http://www.goiena.net/sailkatuak

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 22 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEN GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 30 EURO (+BEZ). GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

DEBAGOIENA

Etxebizitza eragile batek administrari eta saltzaile lanak egiteko pertsona bat behar du. Etxebizitza salmentetan esperientzia kontutan hartuko da. Interesatuak bidali Curriculumama lehenbailehen 42 posta kutxatila 20560 Oñati edo 943 71 61 37 fax zenbakira.

BERGARA

Ile apaintzailea
behar da.
943 76 00 55

an. 105 m². Lau logela, bi komun, egongela eta sukaldia. 635 71 41 39.

Oñati. Etxebizitza salgai Olakua auzoan. Hiru logela, sukaldia, bainugela, egongela, trasteleku eta garaje itxia barne. Guztiz eraberritua. 657 72 25 70 edo 665 72 87 89.

Oñati. Zubillaga auzoan. 79 m². Hiru logela, sukaldia, egongela, komuna eta ganbara. 39 milioi, negoziagarriak. 635 71 41 39 edo 943 08 13 25.

103. ERRENTAN EMAN

Bergara. Etxea errentan Barrenkalean. Bi logela, berritua. 651 85 19 36.

Oropesa del Mar (Castello). Apartamentua errentan Marinad'Or-en. Hondartzan lehenengo ilaran. Bi logela, bi komun, egongela eta sukaldia. Bi igerileku. 4-6 pertsonarentzat. 685 75 62 51.

104. ERRENTAN HARTU

Debagoiena. Etxea errentan

hartuko genuke. Telefonoa: 943 76 05 46.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Garajea salgai Belorrieta auzoan. 943 79 47 04 edo 696 70 80 38.

Bergara. Garajea salgai Masterrreka kalean. 651 70 90 12.

202. EROSI

Bergara. Justo Garate plazan garajea errosiko nuke. 649 88 31 70.

203. ERRENTAN EMAN

Antzuolako Sagasti auzoan garaje itxia alokatzen da. Telefonoa: 669 97 93 48.

Bergara. Masterrrekan garajea errentan ematen da. Telefonoa: 651 70 90 12.

Bergara. San Lorentzen garajea errentan ematen da. Gaez deitu. 943 76 18 01.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Oñati. Oñatiko kale Zaharrean garaje bat salgai. 635 20 64 18.

MONDRAGON LINGUA

Begiraleak behar dira Euskadiko zenbait tokitan uztailean antolatzen dituen ingelesekoudalekuetarako. Interesik baduzu, bidali curriculumama aetxenausia@mondragonlingua.com helbidera edo deitu 943 71 20 55 zenbakira (Ainara Etxenausia), otsailak 27a baino lehen.

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. 80 metro koadroko lokala ematen dut errentan. 645 00 80 55.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Ume bat zaintzeko pertsona bat behar dugu. 679 27 74 53.

402. ESKAERA

Arrasate. Mutil bat prest asteburuetan lan egiteko. Telefonoa: 667 93 85 40 edo 637 44 59 27.

noa: 667 93 85 40 edo 637 44 59 27.

Bergara. Emakume arduratsua gertu garbitasun lanak egiteko. 664 38 49 76.

Bergara. Neska gaztea gertu garbitasun lanak egiteko. 619 65 56 75.

Debagoiena. Emakume gertu umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egin edo garbiketa lanetarako. Luz Eidyth. 943 03 45 06.

Debagoiena. Etxeko lanak eta tabernako lanak egin edo pertsonak zainduko nituzke. Emakume arduratsua. 667 20 56 29.

Debagoiena. Marmolista. 10 urteko esperientziarekin. 617894736.

Debagoiena. Neska arduratsua prest orduka lan egiteko; garbitasun edo taberna lanak egin edo pertsonak zainduko nituzke. Deitu telefono honetara: 639 44 41 20.

Debagoiena. Neska gaztea garbitasun lanak eta tabernako lanak egiteko gertu. Bergara, Arrasate edo Eibarren egingo nuke lan. Deitu telefono honetara: 671 71 90 03.

Debagoiena. Pertsona esperientziaduna gertu garbitasun lanak egin edo nagusiak zaintzeko. Deitu telefono honetara: 686 52 15 98.

Debagoiena. Pertsona gertu atariko garbiketarako egiteko. Lanean seriotasuna eta asteko edozein egunetan lan egiteko gertu. Deitu 649 63 23 24 edo 696 38 10 07 telefonoetara.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zein haurrak zaintzeko emakume prest. Baita etxeko lanak egin edo lokalak garbitzeko. 617 89 47 36.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Citroen Saxo VTS salgai. 90 ZP. 1998koa. Zuria. 2.500 euro (prezioa ados daiteke). Telefonoa: 660 80 67 03.

Honda CB 600 motorra salgai. 1998koa. Berri-berria. 25.000 km. 4.300 euro. Deitu 699 37 15 11 telefonora.

Honda CBF 250 motorra salgai. 2006koa. 7000 km. Garantia ofiziala. Estra, maleta eta kupula. 686 67 17 38.

Mercedes Vito. 110 ZP. Diesel. 55.000 km. Aire girogailua. ASR. ABS. 18.000 euro. 680 69 32 65.

Nissan Almera 2.2 D16v Sport autoa salgai. Deitu 646 03 39 45 zenbakira.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Ipod Video 30 GB, zuria. Oso gutxi erabilia. Eraman itzazu 7.500 abesti eta bideoak zurekin. 125 euro. Deitu 635 73 22 72 zenbakira.

Sifoiak saltzen dira. Telefonoa: 943 76 46 90.

806. GALDU

Arrasate. Belarritakoa galdu nuen, otsailaren 1ean, parrokia-ko irteeran. Perla borobila dauka. Deitu telefono honetara: 669 52 69 62.

9/ HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Gasteiztik Debagoienara etortzeko, autoa eta gastuak elkarren artean ordaintzeko jende bila nabil. Bi errelebutan egiten dut lan. Deitu telefono honetara: 945 24 74 65.

Lan poltsak

EUSKALTEGIKO IRAKASLEAK

Izangaiak udaletxean aurkeztu behar dira otsailaren 13an, goizeko 10:00etan, proba praktikoa egiteko.

AUKEAKO ATEZAINAK

Izenak emateko epea: otsailak 22ra arte.

Oinarri-arauak: BAZen (Maisu Arano 8; Tel.: 943 25 20 00) eta www.arrasate-mondragon.org webgunean

Proba eguna: 2008ko otsailaren 13



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Pertsonal Saila ■

Otsailak 11:
161. zozketa

ASTELEHENEN GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, otsailak 11, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak! ASTELEHENEN GOIENKARIAko harpidedun bazara, adi:

Zeuren izen zaitzake hurrengo zozketako irabazleetako bat!

Saridunak

ELGETAKO ESPALOIAN, otsailaren 23an izango den "El despertar de los sentidos" antzezlanerako lau sarrera. Irabazle bakoitzari bi emango zaizkio.

- Jose Antonio Azkarate Barandiaran (Arrasate)
- Jesus M. Goñi Arregi (Antzuola)

Sariak jasotzeko epea: 15 egun

162. zozketako saria

Realeko txaleko bat

'Markak Gernika 1937'
Bernardo Atxagaren
azken libururen ale bat.

Harpidedun ez bazara...

Harpidedun egiteko:

943 08 10 50
09:00etatik 18:00etara.


Harpidetza kuota:

38 euro
2008ko urteko kuota

Goienkaria
astehenean, aste bukaera osoa

astea GOITBn

Astelehena, 11



> Oletaren gaineko erreportajea gauean 21:47

Oletarrek diote ez direla aramaioarrak ezta otxandioarrak. Oletako historia eta bitxikeriak jaso ditu Julen Iriondok erreportaje honetan.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea: Tipi Ttapa.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Ilunpean.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Berbaire.
- 16:15 Berbaire.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Calimero.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ikusmira.
- 18:15 Ikusten.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Gertutik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Harmailatik.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Erreportajea.
- 22:15 Kirolari.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Harmailatik.
- 22:45 Gaurkoak.
- 23:30 28 Klipa.
- 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 12



> 'Animaliak' saioa, Iñaki Leturiarekin 22:15

Animalien gaineko saioa eskainiko dute Goiena Telebistan bihar, 22:15ean. Iñaki Leturiak aurkeztutako saioa da honakoa.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Horry.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 Harmailatik.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Gertutik.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Kirolari.
- 16:15 Eltze beroa.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Horry.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 28 Klipa.
- 18:15 Musikantoi.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak: Horry.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Kantari.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Berbaire.
- 22:15 Animaliak.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Ikusmira.
- 22:45 Gaurkoak.
- 23:30 Erreportajea.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 13



> 'Euskal Artzainak Ameriketara' 21:47

Euskal Artzainak Ameriketara dokumental sortaren lehen atala eskainiko dute eguaztenean Goiena Telebistan, gaueko 21:47an.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Kantari.
- 14:15 Eltze berioa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Berbaire.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Animaliak.
- 16:15 Teknopolis.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Calimero.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Gertutik.
- 18:15 Harmailatik.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak: Horry.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Zaharrak berri.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Ikusten.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Zu kazetari.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Teknopolis.
- 22:45 Gaurkoak.
- 23:30 Jazmina.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 14



> 'Teknopolis': zientzia eta teknologia aztergai 23:15

Elhuyarrek EITBrentzat ekoiztutako *Teknopolis* saioa eskainiko dute eguenean. Saioak, zientzia eta teknologia alorreko gaiak lantzen ditu.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Zaharrak berri.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Marrazki bizidunak.
- 14:15 Zu kazetari.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Berbaire.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Animalia.
- 16:17 Teknopolis.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Horry.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Gertutik.
- 18:15 Harmailatik.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazkiak.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Kantari.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Erreportajea.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Berbaire.
- 22:15 Musikantoi.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Ikusten.
- 22:45 Gaurkoak.
- 23:30 Ilunpean.
- 00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 15



> Alberto Gorritiberea 'Ilunpean' saioan 22:15

Debatarra sortzez, 1983. urteaz geroztik Loiola Irratian dihardu kazetari lanetan. Kazetari nekaezina, hainbat alor landu izan ditu Gorritibereak.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Kantari.
- 14:15 Animaliak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Berbaire.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Eltze beroa.
- 16:15 Musikantoi.
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Erreportajea.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Ikusmira.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Erreportajea.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Gertutik.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:30 Musikantoi.
- 00:15 Emisio amaiera.

arrasate irrati

FM 107.7

> Hainbat sari zozketarako dituzte Arrasate Irratian 10:30

Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak diskoeak, Jimmy Bidaurretaren eskutik hainbat musikariren gainean ekoiztutako diskoa zozketatuko dute Arrasate Irratian. Gainera, liburuak ere zozketatuko dituzte.

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.
Ilunpeansaiogan, Exkixu taldeko Alex Sardui; musika kontuak, Kantaka saioan; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta kontuak, besteak beste) Zaharrak berrisaioan, etabeste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik eguaztenera

10:00-12:00 Igo Autobusera Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearren errepaso
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com))
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

gertutik



Kepa Errasti
Aktorea

"Umeekin zailagoa da: gustuko izanez gero ondo, bestela akabo"

MIREN ARREGI > ARRASATE

Kazetaritza ikasketak egin bazituen ere, antzerkian edota aktore lanak egiten ezagutu dugu Kepa Errasti. 26 urteko aretxabaletarra gaur egun Tolosan bizi da. Une politik bizi ditu, bere irribarrea eta barre algarak dira horren isla. *Goenkale*-ko Alex pertsonaiari ematen dio bizitza, eta aurten hirugarren denboraldia beteko du ETBko telesail ezagunenetarikoa.

Aretxabaletarra sortzez, Tolosan bizi zara. Aratusteak gustuko izango dituzu, ezta?

Bai, asko gustatzen zaizkit, zortuta naukate. Domekan Aretxabaletan izan nintzen. Tolosan sei egunetan ospatzen dira eta Aretxabaletan egun bakarra denez, Aretxabaleta etortzen naiz. Tolosan ere ibili naiz eta, egia esan, Tolosakoa aho zabalik geratzekoa da. Tradizio handiko jaia da hangoa eta izugarriak moztorrokak eta karrozak ikusten dira. Biak gustatzen zaizkit, baina onartu beharra dago Tolosakoak izugarriak direla.

Bada Maria Luisaren heriotza eta gero, *Goenkale*-k indarra galduko duela uste duenik. Zeresanik emango du oraindik telesailak?

Baietz uste dut, horretan dabil-tza gidoilariak. Ez da erraza esaten, izan ere, ez dakigu jendeak zelan erantzun duen. Pertsonaia garrantzitsua joan da. Dena den, dakidana da oraindik ere Maria Luisak zeresan handia emango duela Arralden eta haren izena askotan entzungo dela oraindik ere. Hala ere, Maria Luisa pertsonaia bat zen eta beste asko gelditzen dira.

Antzerkian ere behin baino gehiagotan ikusi izan zaitugu...

Eta jarraitzen dut. Martxoan Oñatin izango gara, *Amamaren memoria* izenburuko antzerkiarekin eta oso gustura dihardut lanean. Aurrez izanak gara Arrasaten antzezlan horrekin. Ikusleen erantzun polita dauka eta asko gustatzen zait. Umeendako beste antzerki baten ere banabil, ordezkapen bat egiten: *Ni ez naiz txotxolo* izena du. Hau zailagoa da, izan ere, umeekin arrisksuagoa da; gustatzen bazaie, ondo, baina bestela akabo. Ikuslerik zintzoenak izan ohi dira. Dena dela, antzerkia dinamikoagoa da, biziagoa... Zuzenekoak beste sentazio batzuk sortzen ditu.

asteko hitzorduak

Kontzertua



ARRASATE

> Debagoieneko 54 piano-jotzailek kontzertua egingo dute eguaztenean

Andoainen, 824 piano-jotzailek kontzertua egingo dute hilaren 23an eta 24an. Horretarako prestatzeko, etzi, Arrasate, Eskoriatza eta Bergarako piano-jotzailek egingo dute emanaldia Amaia antzokian, 18:30ean. Doan.

Ekitaldia



BERGARA

> Amodiozko Gutunen Lehiaketako sariak banatuko dituzte eguenean

Jardun elkartearen eskutik, Amodiozko Gutunen lehiaketako 16. edizioako sariak banatuko dituzte eguenean, hilak 14, kultura etxean, 19:00etan. Irabazleek gutun sarituak irakurriko dituzte.

Jardunaldiak



ARRASATE

> '¿Teléfono rojo? Volamos hacia Moscú' filma eta hitzaldia

Historiazinemaren bidez jardunaldietan, *¿Teléfono rojo? Volamos hacia Moscú* film klasikoa emango dute bihar, Kulturaten, 18:00etan, eta Ana de Zaballa irakasleak azalpen batzuk emango ditu segidan.

kuxkuxeroa



Maider Arregi

Debagoienean musika aukera zabalegia?

Aze nolako aste bukaera! Horrenbeste musika eta kontzertu on egun berean aspaldi ez zitzaizkidalda suertatzen. Aste osoan zer egin erabaki ezinda ibili naiz. Azkenean lanak eta bihotzak eraman naute Eskoriatzara. **Aby-Kem** bergararrek aspaldian entzundudun Thrash eta Death txukunena egiten dute. Bazen garaia gure ibarrean halako musika estiloa bultzatzeko! **Mikel Alvarezek** badaki ikuslea erakartzen eta **pantera beltzen** ikuskizuna paregabea da! Eskerrik asko **Aby-Kem!** Eta **Latzeni** zer esanik

"Latzenen kontzertu ostean jendetza; asko autoko maletalekuan sartuta itzuli zen etxera bueltan"

ez. Hamar urteren ostean berriro taula gainean duten maisutasuna ikaragarria da. Inbidia ematen dit **Martik** gitarra nola jotzen duen ikustea. Horrek irakasgai bat gainditzeke daukadala gogorarazi dit. Ea aste honetan Latzenek beste urte dituen **gitarra** astintzeko denbora hartzen dudan.

Fangoria da urtebete itxaroten neraman taldea. Kasualitatea guztia egun berean tokatzea! Alaska eta bere dantzarien probokazioaz askok gozatu zuten zapatuan. Datoren urtean ere **Jamera** etorriko direla espero dut; ia urtero egiten digute bisita! Eta bestela ea **Oñatira** ekarzerik daukagun. Norbait prest antolatzen laguntzeko? **Anje Duhalde** ere Espaloira etorri zen. Hurrengo batean izan beharko da, Anje!

hildakoak

- **Iñaki Bengoa Etxebarria**
Arrasaten, otsailaren 2an. 75 urte.
- **Miren Aginagalde Arana**
Aramaion, otsailaren 7an. 89 urte.
- **Jabier Iturralde Uranga**
Bergaran, otsailaren 7an. 57 urte.
- **Teodoro Trojaola Jauregi**
Arrasaten, otsailaren 8an. 83 urte.
- **Juliana Arantzabal Albistegi**
Elgetan, otsailaren 8an. 84 urte.

asteburuko albuma



Mikel Markez eta Pako Aristiren ikuskizuna, Bergaran. *Tabuak saltsa berdean* izenburupean, ikuskizuna eskaini zuten zapatuan Mikel Markezek eta Pako Aristik, Bergarako Aroztegi aretoan. Tabuak kozinatu zituzten bertan, eta horiek aztertzen saiatu ziren ondoren, kantu eta poema bidez. Abeslariak eta idazleak 15 urte inguru daramatzate elkarlanean, eta biek batera egiten duten hirugarren ikuskizuna da hau: *Tribuaren hitz galduak* eta *Abiadura handiko urte baten kronika* dira aurrekoak.



Oñatiko Errekalde Herri Eskolako haurrak, txokolatearen munduan. Anton Azpiazen eskutik, txokolatearen munduan murgildu ziren zapatuan Oñatiko Errekalde Herri Eskolako neska-mutikoak. Klaxk txokolateroen elkarteko presidente eta *La amargura del cacao y la magia del chocolate* liburua-aren egileak hitzaldi-tailer bat gidatu zuen, gaztetxoei jateko honen ingurukoak ezagutarazteko. Ikastetxean egiten ari diren euskal kulturaren hamabostaldien barruan kokatzen da ekimena.



Lizaso eta Egaña bertsolariak kantuan jardun zuten Gesalibarren. Santa Ageda jaiak ospatu dituzte asteburuan Arrasateko Gesalibar auzoan. Egubakoitz gauean bertso-afaria egin zuten, eta izen handiko gonbidatuak izan zituzten bertan: Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña. Auzoko jaiak izanik, baina, bestelako ekitaldiak ere izan dituzte: zapatuan, koplak abestu eta sagardo berria estreinatu zuten; eta atzo, meza esan zuten auzoko zaindarien alde, Gesalibarko eta Garagartzako koruek lagunduta.



Jone Muxika txirrindularia omendu zuten atzo Elgetan. Goiz partean bi bizikleta ibilaldi egin zituzten, gazteek bat, eta haur eta nagusiek bestea. Asentzión elkartu ziren guztiak, eta bertan festa egin zuten. Herrira itzulita, Jone Muxika omentzeko ekitaldia egin zuten Espaloian, eta segidan, bazkari herrikoia. Txirrindulari elgetarrak Gipuzkoako eta Euskadiko ziklo kros txapelketak irabazi ditu, eta Espainiakoan hirugarren postua eskuratu du. Udalak eta Txirrindulari Elkarteak antolatu zuten omenaldia.

ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zator ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

Arrasate Goiena: Otolara lizentziaduna 31. 943 25 05 05 / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. **Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05. **Oñati** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65. **Arebaleta**: Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramaio**: Kintelena janari denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22. **Elgeta**: Mariasun janari denda: Salbador 26. 943 76 81 90. **Antzuola**: Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 100 euro. Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 90 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN,
bietan, argitaratuz gero, **120 euro.** Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 110 euro.
Goienkaria: astero, 50.000 irakurle Gipuzkoan (CIES).



zorion agurrak



BERGARA
Erkuden Unamuno eta Xabat Arregi
Pasa den astean, urteak bete zituzten Erkudenek eta Xabatek. Amak, otsailaren 4an eta semeak, 9an. Zorionak etxeko partetik.



ARRASATE
Garazi Prieto Goñi
Otsailaren 4an. Zorionak aita, ama eta Eiderren partetik.




BERGARA
Urko Agirrezabal
Otsailaren 5ean, urtebete. Zorionak, familiaren partetik, bereziki, Alaitzen partetik.



OÑATI
Maidur Murillo Astigarraga
Otsailaren 16an, 10 urte. Zorionak, familia guztiaren izenean. Ondo pasa zure egunean eta patxo handi bat.



DEBAGOIENA
Mikel eta Jon Etxaniz
Mikelek, urtarrilaren 23an, 3 urte eta Jonak, otsailaren 11n, 6 urte. Zorionak etxeko partetik.



ARETXABALETA
Julen Larrinaga
Zorionak aitaxo zure urtebetetzean! Ondo, ondo pasa Jokin, Ainhitz eta amatxon partetik.



BERGARA
Izar Odrizola
Otsailaren 9an, 9 urte. Urte askotarako, mizkintxo! Etxeko eta bereziki, Juneren partetik.



ARETXABALETA
Naroa Urtaza Urzelai
Otsailaren 11n, 4 urte. Zorionak etxeko partetik eta bereziki Ikerren partetik.



ARRASATE
Sali Francho
Otsailaren 11n, urtebetetzea. Zorionak, senarraren, seme-alaben eta biloben partetik!



ARETXABALETA
Alaitz Iturbe
Otsailaren 13an, 4 urte. Zorionak etxeko eta bereziki Oinatz eta Iratin partetik.



BERGARA
Ismene Fernandez
Otsailaren 13an, 9 urte. Zorionak zure izeba, ama eta ahizparen partetik.



ARRASATE
Leire Zubikarai
Otsailaren 14an, urtebetetzea. Zorionak eta patxo handi bat munduko amatxorik politenari! Garikoitz eta Itzea.



ARRASATE
Irati eta Manex Ayesa
Otsailaren 15ean, urtetxo bat! Zorionak eta patxo handi bana familia guztiaren partetik.



ARRASATE
Alaitz Barrutia
Otsailaren 17an, urtebetetzea. Zorionak printzesa! Familiaren partetik.

ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENEKO GOIENKARIaren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!

jaiotakoak



Aimar Vitoria Gutierrez
Arrasate > 4,240 kilo. Otsailaren 4an. Gurasoak: Mari Karmen (Eskoriatza) eta Javi (Eskoriatza). Argazkian, Aimar jaioberria, amaren besoetan.



Anartz Lopez Campos
Arrasate > 3,440 kilo. Otsailaren 5ean. Gurasoak: Mari (Arrasate) eta Andoni (Arrasate). Argazkian, Anartz jaioberria lo.



Gaizka Agirreurreta Litago
Arrasate > 3,190 kilo. Otsailaren 6an. Gurasoak: Lorea (Elgeta) eta Jon (Arrasate). Argazkian, Gaizka jaioberria amama Pilirekin.



Naroa Legazpia Larrea
Oñati > 3,540 kilo. Otsailaren 8an. Gurasoak: Olatz (Oñati) eta Igor (Bergara). Argazkian, Naroa jaioberria, lo.



Gari Martinez Saavedra
Arrasate > 4,300 kilo. Otsailaren 8an. Gurasoak: Belen (Arrasate) eta Iñaki (Arrasate). Argazkian, Gari jaioberria izeba Martarekin.



Nahia Valenti Martin
Arrasate > 3,800 kilo. Otsailaren 9an. Gurasoak: Arantxa (Bilbo) eta Sergio (Caceres). Argazkian, Nahia jaioberria, lo.



Intza Ezpeleta San Pedro
Arrasate > 3,290 kilo. Otsailaren 9an. Gurasoak: Itziar (Arrasate) eta Joseba (Arrasate). Argazkian, Intza jaioberria lo.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI

Umeen paradisia

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Alberto Gorritiberea > Kazetaria

"14 urterekin jaialdiak aurkezten ibili nintzen"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Alberto Gorritiberearen ahotsa oso ezaguna da, 1983tik Loiola Irratian lanean diharduelako. Gizon geldiezina da eta aukeratzen dituen lanean, guztietan, ahal duen guztia jartzen du. Jakin nahia izugarria dauka Gorritibereak.

Txikitari osabarenean animaliekin asko jolasten zenuen?

Pixka bat bai. Bitxia da osabak oraindik Gorriti eta bere animaliak ikuskizunarekin jarraitzea. Oso oroimen politak ditut. Bestalde, pena da gaur egun jendeak animalien gainean hain sentibiltasun gutxi izatea.

Eta zu debarra izanda, zezenzalea zara?

Bai, entzierro eta zezen zalea naiz, baina zezen plazan pikatzaila sartzen denean ez dut gustuko. Lehenengo gaupasak entzierroengatik egiten genituen.

Lo egitea denbora galtzea da zuretzat?

Ez horrenbeste. Zatika ez bada ere, egunero zazpi ordu egiten ditut.

Gaur egun debartzat edo mutrikutartzat daukazu zure burua?

Bietan adarra jotzen didate kanpotarra naizelakoan. Nongoa naiz? Ba, nagoen eta egin behar dudana hartakoa. Adibidez, *Herriz herri* saioa prestatzen ibiltzen naizenean herri horretakoa naizela esaten dut, komeni dela herri horren gaineko ikuspegi sakona edukitzea.

Noiz konturatu zinen kazetaritza zure bokazioa zela?

Debako Gazteen elkartearen ibili ginen gaztetxotan, zentzu kri-

tikoa lantzen eta kultura ekimena antolatzen. Tartean jaialdi batzuk antolatu genituen. Gogoa daukat 14 urterekin, kaikua jantzita, Mikel Laboa, Oskarbi, Lourdes Iriondo eta Xabier Leteren kontzertu bat aurkeztu egin nuela. Sasoi hartan Barne Sailari kantuen itzulpenak bidali behar izaten genien... Orduan konturatu nintzen kazetari sena neukala.

Baina ikasketa teknikoak egin zenituen...

Bai, anaia nagusia nintzen eta aukeraketa hori egin nuen. 3 urte egin nituen delineatzaile enpresa baten, eta premiarik izango banu bueltatuko nintzateke; oso polita da.

Kazetari izango ez bazina, bidai antolatzailea izango zinateke?

Zergatik ez? Ikaragarri gusatzen zait koadrilako ibilaldiak ondo-ondo antolatzea. Bidai organizatuek ez daukate gurearen aldean inolako inbidiarik. Jakin nahia dut, eta honetan ere tematzen naiz ahalik eta lan ona egiten.



IRRATIGINTZA Gorritibereak 25 urte darama Loiolan Irratian lanean. OIHANE AGIRRE

TEST-A

Herria: Arrasate. **Adina:** 49 urte. **Ikasketak:** Maisutza industrial. **Zaletasunak:** Ibili, ezagutu, hitz egin... Jakin nahia. **Bete duzun amets bat?** Lan bakoitzari ahalik eta etekin handiena ateratzea, eta gustura gelditzea. Oro har eguneroko bizitzari aurre egitea. **Irratia entzuten zein telebista ikusten zappinga egiten duzu beti...** Bai, gusatzen zait kontrolatzea besteek zer egiten duten, erreferentziak hartzeko. Beti dago zer ikasi.

ai, ene!



Ardi kontatzeko lanpara berria

Jende askok lo hartzeko arazoak izaten ditu. Orain, lanpara honi esker ardien irudia logelako paretan islatu eta ardien kontaketa egitea, umeendako bereziki, errazagoa izango da aurrerantzean.
<http://elfurl.com/kbmqn>

biharamuna

Oier Bolibar

Besarkaden makina

Temple Grandin-i buruz hitz egin dit aste hontan lagun batek. Templek, besarkadak emateko makina bat asmatu zuen. Nonbait, gizakion sentimentuen subjektibotasuna ulertu eta interpretatu ezin dezaketen pertsonentzat asmatua. Sentimenturik gabeko besarkadak jasotzeko, enpatiarik ahalbidetzen ez duena, baina besarkadaren gertutasuna eta kontaktu fisikoa uztartzen dituena.


Besarkadak bere baitan sentitu omen nahi zituen makina besterik ez zuen nahi, beste bitarteko sentimentu zein kimika berezirik sortzen uzten ez zuena. Pairatzen zuen



autismoaren beharrak bultzatuta sortu zuen makina, mekanikoki intentsitate zein iraupean kontrolatutako besarkadak jaso ahal izateko. Honek ahalbidetu zion besteenganako enpatia hobetzen eta sakontzen. Gaur egun terapia moduan aplikatzen da kasu askotan.

Behin eta berriz ikusten ditugu kontzienteki induzituriko joera autistik, non interes partikularrak zein amestutako helburuak, harreman sozialen idatzi gabeko erregelen gainetik jartzen diren. Ikuspegi mugatzaile horren murgilaldirik atzeratzen ikasteko makinak beharko liriateke.

eguraldia



MAXIMOA

+17

MINIMOA

+1

Udaberri giroko eguna izango dugu. Eguzkitsua eta goizean fresko. Egunak aurrera egin ahal eguzkiak goxatuko du giroa.

www.euskalmet.euskadi.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea **KODEA**
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea **KODEA**
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea **KODEA**
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea **KODEA**

5767 zembakira
SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZA

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria): **KODEA**

Himnoak
Eibar | **EIBAR**
Athletic Club | **BILBAO**
Osasuna | **OSASUNA**
Real | **REAL**
Real Union | **UNION**

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | **SOROTAN**
Bai euskarari (Pantxoa) | **BAI**
Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | **BIZKAIA**
Eperak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**
Euskal Herriaren Euskaraz (Oskori) | **EUSKAL**
Euskaldun berriaren balada (Oskori) | **EUSKALDUN**
Ez da posible (Ruper Ordonika) | **POSIBLE**
Furra Furra (Oskori) | **FURRA**
Galziara noa (Oskori) | **GALZIARA**
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) | **GERNIKA1**
Haika Mutil (Mikel Laboa) | **HAIKA**

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena | **KODEA**

1,2,3,4... Real! | **REAL**
Alboka | **ALBOKA**
Athletic Iuep! | **IUEP**
Buztan bertsoa | **BERTSO**
Hartu... Ansar | **ANSAR**
Hartu... Argentinarra | **ARGEN**
Hartu... Mexikarra | **MEXIKO**
Hartu... Miamol | **MIAMOL**
Independentzia! | **INDEPEN**
Irrintzia | **IRRINTZI**
Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**
Milazu! | **MILAZU**
Milazu! | **SUPRINU**
Tobera | **TOBERA**
Txalaparta | **TXALA**
Txanbera | **TXANBERA**
Txoootx | **TXOTX**

Herrikoia
Bagare | **BAGARE**
Desde Santurce a Bilbao | **DESDE**
Iku Mendizaleak | **MENDI**
Pintxo-pintxo | **PINTXO**
San Simon eta San Judas | **SAN**

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

LAU1 **MUSKARIA** **AIZKORAK**
NUKLEAR **KALABERA1** **EGUZKILORE3**
SORGIN **POPATIK** **KAPUTX**

OHARRAK
1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta emateko duzu eta Ko jantziak bakarrik ordaindu behar duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea duzu.
* Euskalnet deitu 900 94 02 00 telefonora. / * Vodafone: deitu 123-4. / * Movistar: deitu 609-4.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

WEBGUNEAN www.smsoinu.com